



Haserrea eta emozioak bor-bor

Oñatiko komunitate sahararrak gogor salatu ditu Marokoren errepresioa eta Nazio Batuen Erakundearen nahiz Frantzia zein Espainiaren jarrera konplizeak.

Gerra danbor hotsak entzun dira Mendebaldeko Saharan, 1991ko su etenetik inoiz ez bezalako tentsio militar eta politikoa dago Maroko eta Saharako gobernuen artean. Urria amaieratik hainbat zibil saharar Guerguerateko errepide bakarra blokeatzen ari ziren, Marokoren kontrolpeko igarobide hori ilegala dela salatu eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Marokok, indar militarrez erantzun zuen eta eremu desmilitarizatu armadarekin sartu zen. Marokoko armadaren erasoak 1991n sinatutako bake hitzarmena apurtzea dakarrela uste du Fronte Polisarioak, horregatik, borrokarako prestatzeari ekin diote. Hala, 2010eko Gdim Izkiko istiluetatik bare zegoela zirudien gatazka berpiztu da.

Danbor hots horien burrunbak ere bere oihartzuna izan dute Oñatin, azaroaren 22an herritarrek plaza bete baitzuten Marokoren eraso salatu eta herri sahararri babesa adierazteko. Saharako bandera eta ikurrinez gain, Bereberrak ordezkatzeko dituen bandera Amazighak ere ikus zitezkeen. Euskal Herri osoko herrietan errepikatu dira mobilizazioak, eta hainbat alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialek babesa adierazi diete sahararrei.

Bertan zegoen bere osotasunean herriko komunitate sahararra. Gaur egun 12 familia inguruk osatzen dute; orain gutxi iritsitako jendea, zein hamarkada bat baino gehiago Oñatin daramatzatenak daude tartean. Haien seme alaba asko Oñatin jaio dira, eta euskara eta hasaniera dituzte ama hizkuntzatzat. Guztien bizitza erabat baldintzatuta dago Sahara eta Marokoren arteko gatazkarengatik.

Mohamed Larbik 1976an hasitako gerran parte hartu zuen, Fronte Polisarioko lerroetan borrokatu zuen Mauritania eta Marokoren okupazioaren aurka. Bere gorputzean ditu hiru balak utzitako orbanak, gerraren pasarte ankerrenaren oroigarri gisa. Mahmud Ali eta Hazaza Ahmed oso gazteak ziren gerra hasi zenean, baina badituzte Martxa Berdearen oroitzapenak; "bonbetatik ihesi joan behar izan ginen, buruan txertatuak ditut anabasa haren irudiak" dio Alik. Martxa Berdearen ondoren hiru aldeetako akordioa etorri zen, Mauritania, Espainia eta Marokoren artean, alegia. Akordioan Sahara Mendebaldeko lurak Maroko eta Mauritaniaren artean banatu zituzten, Espainiaren onespenearekin. Borroka latzen



GERRA EKIDITEKO IRTENBIDE BAKARRA ERREFERENDUMA

Gerra baten atarian

Urria amaierako Guerguerateko gertakarien ondoren, Fronte Polisarioak amaitutzat eman du su-etena eta gerrarako prestatzen hasi da.

Xabier Etxebarria Unzurrunzaga

ondoren, Fronte Polisa-
rioak Mauritania kanpo-
ratzea lortu zuen, eta hainbat
lur eremu bereganatu zituen
Marokoren atzaparretatik.

Egoera horretan, haien lu-
rretatik ihes egin behar izan
zuten milaka saharar Tindou-
feko kanpamentutan egonkortu
ziren, gaur eguneraino, 40 urte.
Tartean, Marokok munduko
harresi handiena eraiki du
lurraldea bereizteko. Hazazak
guzti horrek dakarren nortasun



galera azpimarratzen
du, "sahararra izatea bi-
zirik hila egotea bezala
da, inon ez zara inongoa.
Gure lurra ez da gurea".
Horretaz gain, bertako
bizi baldintzak giza duinta-
sunarekin ez direla batera-
garri uste du Alik; "mundu
mailako pandemia honek
guztiok konfinatzera
eraman gaitu, baina gu
40 urte goaz Aljeriako
basamortuan konfinatuta"



dio. Ahal duten moduan bizirauten dute bertan, horretarako ezinbestekoa zaie nazioarteko erakunde eta elkartasun taldeek bidalitako laguntza.

Ezaguna da Euskal Herriak Sahararekin duen elkartasun mugimendua. Neurri handi batean Tindoufeko egoera bizigarri egitera bideratu da elkartasun hori. Urte luzez, uda pasatzera etorri izan dira haur sahararrak Oñatira, Gelibat El Fula herriarekin anaituta dago Oñati, jende andana hurbildu da bertara, ikastetxeak barne, eta gaur egun ere arropa eta janari bilketak ohikoak dira kanpamentutara materiala bidaltzeko.

Laguntza honengatik guztiagatik oso eskertuta egonagatik ere, saharar askok

aukera dutenean alde egiten dute errefuxiatu kanpamentuetatik. Malainin Embarec Tindoufen jaiotakoa da, 20 urte ditu, eta ez du Saharako lurrik zapaldu inoiz. Orain dela bi urte etorri zen Oñatira, eta gaur egun bere lagunak Tindoufen daude, asko Fronte Polisarioan izena ematen ari dira. Alik ondo laburbiltzen du be-launaldi berrien egoera; "guk gerra ezagutu genuen, bake akordioa sinatu genuen, gure egoera, errefuxiatuena, eta lurraldearena konponduko zela uste genuen, eta ez da halakorik gertatu. Orain, bake akordioaren urteetan jaio ziren gazteek borroka aldarrikatzen dute, latza da, baina normala da. Ez daukagu beste biderik".

Tindoufen dituzten familia eta lagunekin harremanak izan ditzakete, baina ezta hala lurralde okupatuetan daudenekin. Hazaza saiatu da haiei deitzen, baina oso dei laburrak egin behar dizkie eta ezin diete haien egoera azaldu. "Marokoko polizia eta zerbitzu sekretuek deiak zelatatzen dituzte eta elkarriketa ez badute gogoko jendearen etxera sartzen dira; kasu askotan atxilotu, torturatu eta bortxatu egiten dituzte, oso latza izaten ari da lurralde okupatuetako errepresioa", dio kezkatuak Hazazak. Hala, nazioarteko eragileen pasibotasunari egozten diote lurralde okupatuetan Marokok egiten dituen gehiegikerien ardura. MINURSO, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Mendebaldeko Sahararentzat

duen misioaren eginkizunetako bat da bertan Giza Eskubideak betetzen direla bermatzea, baina Marokok ez dio halakorik egiten utzi, eta horrek ez dio ondorioz ekarri nazioartetik.

> Herriaren babesa

Oñatiko herriak babesa eskaini zion Saharako komunitateari. Azaroaren 22an egin zen elkarretaratzean jende andana bildu zen plazan.



«Sahararra izatea bizirik hila egotea bezala da, inon ez zara inongo»

Guztiek azpimarratzen dute herri bakezalea direla, baina egoerak borrokara baino ez daramatzala. NBE, Frantzia eta Espainiako estatuen jarrerak salatzen dituzte, haiek jotzen baitituzte egoeraren konplize. Ataka zailean daudela jakitun dira, nazioarteko potentziek ez baitute interesik haien egoera konpontzeko, are gehiago, jokatzeko duten rola araberak Marokorekin izan ditzaketen hartu-eman ekonomiko zein politikoak kaltetuak

atera daitezkeela badakite, baina haiek mugitzeko erronka dutela deritzote sahararrek. Borroka ziklo berri honekin egoera desblokeatu eta nazioartetik Maroko presionatzea eragin nahi dute, 30 urtetako ahanzturarekin amaitu eta autodeterminazio eskubidea gauzatzean oinarrituko den konponbidean konprometitzeko.

Bitartean, Oñatitik adi jarraituko dituzte haien herrialdeko gertakariak. Oso eskertuta agertu dira oñatiarrek, eta oro har euskal herritarrek adierazitako elkartasunarengatik, baina oroitarazi dute momentu erabakigarri baten aurrean daudela, eta inoiz baino gehiago estutu behar dela gatazkari irtenbide justua emateko: erreferenduma egitea. ■

JUANJE MARGOAK
T. 627 818 247

Zure etxebizitzaren hobetzeko prest
Amara igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA
-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

Migratzea eskubidea delako

ABENDUAREN 18A MIGRATZAILEEN NAZIOARTEKO EGUNA DA

'Inor ez da ilegala' lelopean, migratzaileen eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea egingo da, herriko hainbat eragilek deituta

A benduaren 18a Migratzaileen Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak 2000. urtean, migrazioak gizateriaren garapenari egindako ekarpena azpimarratzeko, eta pertsona migratzaileen eskubideak aldarrikatzeko.

Tamalez, baina, Europar Batasuneko estatuak ez dituzte betetzen NBERen baitan hartutako akordioak, eta pertsonak erdigunean ipiniko dituzten migrazio-politiken ordez, mugen kontrolean oinarritutako lege eta arau diskriminatzaileak ezartzen dituzte, migratzaileen eskubideak urratuz, eta sufrimendua eta heriotza eramanez Mediterraneo itsasora.

Gure artean ere, tamalez, nahi baino gehiagotan entzuten ditugu migratzaileak estigmatizatzea helburu duten adierazpenak, eta begiak ixten ditugu, adibidez, baldintza oso prekarioetan eta inolako eskubiderik gabe zaintza lanetan diharduten milaka migratzailearen (gehienak emakumeak) arazoaren aurrean.

Horregatik, herriko hainbat taldek deituta (Hotz-Oñati, Auzoko, CEAR, ACESMA, Txipistin, Elkar Zabal eta Caritas), elkarretaratzea egingo da abenduaren 18an, migratzaileen eskubideak defendatzeko, eta migrazioa aukera bat dela aldarrikatzeko, eta ez arazo bat. ■



» IVON ESCOBAR / Venezuelarra

"Gobernu ustelak dauden bitartean, migrazio prozesuak geldiezinak izango dira"

Venezuelarra sortzez, iazko abenduan iritsi zen Oñatiko Larraña zentrora, eta bertan bizi da, senarra eta bi alabekin batera. Bere sorterrriak bizi duen krisi ekonomiko eta sozialetik eta, batez ere, delinkuentziatik ihes egitearren erabaki zuen migratzea. "Talde armatuak lasai asko dabilta Venezuelan, eta nahi dutena egin dezakete zurekin. Giza eskubideak ez dira bermatzen".

Marokora joan ziren aurrena, bizimodua han egiteko asmoz, baina ez zuten inolako aukerarik izan; ez lanik, ez ikasketarik, ez paperik... Han ia urtebete

egin ostean, Espainiara etortzea erabaki zuten, eta CEARen bitartez iritsi ziren Oñatiko Larraña zentroa. "Hemen aterpea dugu, janaria, alabak eskolan dabilta, senarra eta biok ere ikasten ari gara, eta seguru sentitzen gara; hori da inportanteena. Oñatiarren eta, bereziki, Larraña etxeko langileen gertutasuna eta berotasuna eskertu nahi ditut".

Asilo eskaeraren ebazpenaren zain dago, baina urtarrilean lan-baimena eskuratuko du eta etapa berri bati ekiteko ilusioz dago. "Apartamentu txiki bat alokatu eta bizimodu berri bati ekiteko asmoa dugu. Lana egin eta bizimodua ateratzea; horixe da gure ilusioa eta ametsa".

Migrazio prozesuen inguruko gogoeta ere egin digu Ivonek. "Geldiezina dela uste dut. Venezuela, adibidez, baliabide eta aberastasun handiko lurraldea da, baina herritarren bizi-kalitatea hobetu ordez, herrialdea suntsitzen ari da gobernuak, eta munduan era honetako gobernu ustelak dauden bitartean, emigrazioa existitu egingo da". Mediterraneo itsasoan gertatzen ari den drama ere salatzen du. "Marokon nengoela, bertatik bertara ikusi nuen pertsona horiek sufritu behar izaten duten guztia hona iristearren. Larrañaiko bizilagun batzuen ahotik ere entzun izan dut, eta izugarria da, benetan". Itxaropen mezua ere igorri nahi du. "Bizitza dagoen artean, itxaropena dago. Leku batean ez baduzu aukerarik aurkitzen, zoaz bestera. Tunelaren amaieran beti dago argi izpi bat, txikia izanagatik. Momentu zail eta gogorrek esperientzia ematen dizute eta indartu egiten zaituzte. Aurrera egin behar da, beti, familiaren ongizatea bilatuz, eta bihotzean geratzen zaigun maitasuna partekatuz". ■



» DANIELA PEDROZA / Kolonbiarra

"Interna lana ez litzateke existitu beharko"

Barranquillakoa sortzez, ia bi urte daramatza gure artean; hasieran Arrasaten eta martxoaz geroztik Oñatin. Sorterrian bizi duten barne-gatazka, pobrezia eta delinkuentzia egoeratik ihesi erabaki zuen migratzea.

Seguru sentitzen da hemen, baina sistemak ipintzen dizkien trabak kritikatzeko ditu. "Oraindik sei hilabete itxoin behar dut lan-baimena lortzeko; ia hiru urte. Eta bien bitartean bizi egin behar dut, baina sistemari ez zaio inporta nola egiten dudana, ez zaiolako interesatzen".

Zaintza arloan ari da lanean, eta gustatuko litzaioke gizarteak lan hau errespetatzea eta behar bezala baloratzea, beste edozein langilek dituen eskubideak bermatuz. "Interna-lana ez litzateke existitu beharko, preso egotea bezalakoa baita, eskubiderik gabe".

Migratzaileen kontra gorrotoz berba egiten duten herritarrak ere kritikatzeko ditu. "Migrazioen atzean dagoena ezagutu behar da. Kolonbian, esaterako, Iberdrola bezalako enpresek gasaren eta argindarraren kontrola hartu dute, eta, bien bitartean, pobreak gero eta pobreago. Normala, jendea etortzea, eta gero eta gehiago etorriko dira".

Migratzailea izateak, aukerak edukitzea esan nahi du, Danielaren ustez. "Une zailak bizi izan ditut, pertsona onak eta txarrak ezagutu ditut bidean, baina saiatzen naiz gauza positiboekin geratzen eta horietatik ikasten, aurrera egiteko". Etorkizunean ez pentsatzen ikasi du, eta, oraingoz, emakume eta langile bezala ahaldu beharra daukala ikasi du. Gizatasun eta umiltasun pittin bat eskatzen die politikariei eta gizarteari, oro har. "Enpatizatu dezatela gurekin, eta ez daitezela gu baino gehiago sentitu. Ikus dezatela migrazioa aukera bezala, eta ez arazo moduan". ■

Sentsibilizazio kanpaina berria jarri du abian Hotz-Oñati taldeak, bere printzipio eta balioen parte den 'INOR EZ DA ILEGALA' leloarekin. Argazkikoak bezalako motxilak atera ditu, kotoi organikoak egindakoak, mundu osora zabaldu ahal izan dezagun aldarria, alegia, munduan ez dagoela pertsona ilegalik.

Herriko hainbat denda, enpresa eta ikastetxetan erosteko aukera egongo da, 15 eurotan, eta lortutako etekinak Lesbos uharterko (Grezia) Moria-2 errefuxiatuen kanpalekuan lanean diharduten GKEentzat izango dira oso-osorik. Hotz-Oñatik abenduaren 12an Foruen plazan ipiniko duen mahaian ere eskuratu ahal izango dira motxilak, eta Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, abenduaren 19an herriko plazan egingo den Elkartasun Azokan ere bai.

Poltsa erosten dutenek gutun bat ere jasoko dute. Hotz-Oñatiko kideek Grezian ezagututako Aneesa izeneko neska gazte afganiar batek idatzitakoa da. Hona bertako pasarte bat:

'Illegal hitza, dokumentazio gabeko pertsona migranteekin erabiltzea ez da zuzena. ILEGALA den inor ez dela existitzen jakin behar dugu. Gizakia zoragarria izan daiteke, egiaren jabe, edo ez, baina ilegalak? Nola baina, emakume edo gizon ilegalak! Guztiok dugu bizitza duin eta seguru bat izateko'.

'Inor ez da ilegalak' aldarria bizkarrean eramateko



► Sentsibilizazio kanpaina jarri du abian Hotz-Oñatik. 'Inor ez da ilegalak' aldarria duten motxilak salduko ditu.

► Lortzen den diru guztia Lesbos uharterko Moria-2 kanpalekuan lanean ari diren GKEendako izango da

▲
Herriko hainbat denda, enpresa eta ikastetxetan erosi ahal izango dira Hotz-Oñati taldearen motxilak

» **ISABEL MORENO** / Informa·Tu elkarteko kidea

"5G teknologiaren hedapenean udalak moratoriaren aldeko adierazpena egitea nahi genuke"

5G teknologia kaltegarria ez dela frogatu arte, 'ardura-printzipioa' aplikatu eta sarearen hedapena gelditzea eskatzen du Informa·Tu taldeak. Abenduan mozioa aurkeztuko du udaletxean, ia 800 herritarren sinadurarekin batera.

Azkenaldian eztabaida iturri dugu 5G teknologia. Batzuen ustez abantaila handiak ekarriko ditu; beste batzuek, aldiz, arriskuak ikusten dizkiete, osasunarentzat eta ingurumenarentzat, besteak beste. Hauen artean daude Oñatin eratu den Informa·Tu taldeko kideak. Abenduan mozioa aurkeztuko dute udaletxean. Udalak moratoria eskatzearen aldeko adierazpena egitea nahi dute.

Sinadura bilketa egin zenuten ekainean. Nolako izan zen erantzuna?

Ia 800 sinadura batu genituen eta mozioarekin batera aurkeztuko ditugu udaletxean. Herrian gai honen inguruko kezka bada-goela erakusteko modu bat da.

Zer eskatuko duzue mozio horretan?

Batetik, udalari eskatzen diogu adierazpen bat egin dezala moratoria edo luzamendu bat eskatuz 5G-aren hedapenean, eta eska diezaiola Madrilgo gobernuari ingurumen-ebaluazioa eta ardura-printzipioaren aplikazioa, Arartekoak egin duen bezala.

Era berean, udalari eskatzen diogu telekomunikazioen lege orokorraren aurreproiektuari gaitzespena adieraztea, eraso egiten baitio udalen autonomiari, arlo honetan autonomiek eta udalek dituzten eskumen urriak ezabatuz.

Aurreproiektua aurrera ateratzen bada, telekomunikazio



enpresek ez dute baimenik eskatu beharko antenak instalatzeko, ez eta hauen kokapenaren berri eman beharko ere (150-200 metro bakoitzeko antena bat aurreikusten da), eta horrek galarazi egingo du administrazioek egin beharreko isurien ikuskatze eta kontrol lana.

Era berean, udalari eskatzen diogu europar parlamentuaren 1815 ebazpenean jasota dauden gomendioak aplikatzea, bere egunean Eusko Legebiltzarrak onartutakoak. Ebazpen horrek gomendatzen du ALARA (As

» 5G-aren hedapena gelditzea eskatzen duten 800 oñatiarren sinadurak batu genituen ekainean. Gai honen inguruko kezka bada-goela erakusten dute.

Low As Reasonably Achievable) printzipioa aplikatzea, hau da, emisioak ahal bezain baxuak erabiltzea.

Badakigu udala hasita dagoela gaia aztertzen eta balizko ordenantzak lantzen, eta eskertzekoa da.

Zein dira 5G teknologiari ikusten dizkiozun arrisku nagusiak?

Osasunaren gaia funtsezkoa da, baina ez bakarra. Osasun Mundu Erakundeak berak esan du, eremu elektromagnetikoen eraginpean egotea kantzerigenoa edo minbizi-sortzailea (2B) izan daitekeela, eta eragin edo esposizio hori murriztea gomendatzen du. Bestalde, oso deigarria da aseguru konpainiek 5G teknologia ez aseguratzeko egiten duten gomendioa, daukan arrisku handiagatik.

Ingurumen mailan, Gauzen Internetek (IoT) gero eta gailu gehiago erabiltzea ekarriko du, denak elkarrekin konektatuta, eta horrek negutegi efektua eragiten duten eta berotze globalaren erantzule diren gasen isurien hazkunde esponentziala ekarriko du. Operadoreek beraiek aurreikusten dute gutxienez bikoiztu egingo dela energia kontsumoa.

Pribatutasunaren galera ere ezin dugu ahaztu. Teknologia honek erraztu egingo du gizabanakoen monitorizazioa, eta zaintza eta kontrolerako tresna berriak, hala nola, aurpegi eza-gutza.

5G-ak aldaketa handiak ekarriko ditu gure bizimodura, eta hori eztabaida publikorik gabe eta herritarren parte harterik gabe gauzatzen ari da.

Badira beste ahots batzuk 5G teknologiari osasunaren, hezkuntzaren, mugikortasunaren, industrian... ekarriko dizkigun abantailak defendatzen dituztenak, eta gure osasuna kalte-tuko duela ukatzen dutenak. Abantaila partzialak dira, nire ikuspuntutik. Osotasunean aztertu behar dira. Izan ere, ikusten ari gara komunitatearen bal-

• HITZALDIA •

'5G-a gelditzeko 21 arrazoi'

Informa•Tu taldeko Isabel Morenok hitzaldia emango du **abenduaren 15ean**, Santa Ana aretoan, 19:00etan. 5G-aren hedapena gelditzeko, udaletxean aurkeztuko duten mozioan aipatzen diren arrazoiak azalduko ditu Morenok, jendeak uler ditzan eta kontzientzia hartu. Aforoa mugatua denez, aurrez erreserba egin behar da: 658 71 90 89 / asociacioninformatu@gmail.com

dintza sozialak hobetu ordez, behar berriak, jokabide adiktiboak, teknologiarekiko menpekotasuna edo lanpostuen galera sustatzen dituela, besteak beste. Zenbait ikerketaren arabera, 4.0 digitalizazioak lanpostu galera handia eragingo du nekazaritzan.

Ukaezina da teknologiak abantaila batzuk eskaintzen dituela, baina tentuz neurtu behar dira. Nolanahi ere, haririk gabeko teknologiararen abantaila gehienak kable bidez ere gauzatu daitezke, emaitza are hobekia lortuz.

Osasunarentzat kaltegarriak ez direla adierazten duten ikerketen inguruan, luparekin aztertu behar da atzean nor dagoen, interes handiak baitaude.

Aitzitik, uhin elektromagnetikoen eraginpean egotea gure osasunerako arriskutsua dela frogatzen duten milaka ikerketa independente daude, hala nola, *Bioininitatve 2012* txostena (1.800

» **Instalatzen ari diren teknologia honen eragina neurtzeko parametroak finkatu gabe daude oraindik. Biztanleriarekin egiten ari diren esperimentu baten aurrean gaude**

ikerketa baino gehiagotan oinarrituta).

Europako administrazioek ere 26 GHz banda ez erabiltzea gomendatzen dute, osasunerako izan ditzakeen kalteak aztertu arte.

Ze giro sumatzen duzu gai honen inguruan herritarren artean? Ba dago kezkarik, interesik, informaziorik...?

Oñatin hasi ginenean, ohartu ginen desinformazio handia zegoela 5G teknologiararen inguruan, baina, aldiz, kezka handia zegoen herrian instalatzen ziren antenen eta uhin elektromagnetikoekiko esposizioaren inguruan.

Gero eta elkarte gehiago dago (medikuak, nekazariak, kalte-tuenak...) moratoria eskaerarekin bat egiten ari direnak.

Zenbait hiritan dagoeneko hedatzen ari da 5G sarea. Ez al da beranduegi?

Inoiz ez da berandu. Beti dago etengailua itzaltzeko aukera, eta garrantzitsua da lehenbailehen egitea.

Instalatzen ari diren teknologia honen eragina neurtzeko parametroak finkatu gabe daude oraindik. Hain berria izanik, orain artekoek ez dute balio. Biztanleriarekin egiten ari den esperimentu baten erdian gaude. ■

► HITZALDIA

Osasuna eta COVID 19a

EGUNA Abenduak 9
TOKIA Santa Ana, 18:00
HIZLARIA Juanjo Martinez, zirujaua eta digestiboa



'Osasuna eta Covid-19a' gai hartuta, Juanjo Martinez mediku zirujauak hitzaldia emango du Oñatin abenduaren 9an. Momentu honetan bizitzen ari garen osasun egoeraren inguruan bere hausnarketa pertsonala eta profesionala partekatuko du. Santa Ana aretoan izango da hitzaldia eta 130 lagunentzako tokia egongo da. Aurrez erreserba egin nahi izanez gero: osasunaetaeskubideak-debagoiena@protonmail.com edo 671920601 ■



619 771 031



Adierazpen libreko hiru gune berri ipiniko ditu udalak

Kartelak gutxieneko orden batekin eta horretarako espresuki jarritako lekuetan itsastea eskatzen du udalak



Bidebarrieta kalean dagoen adierazpen libreko gunea, gaur egun herrian dauden 16 guneetako bat



ADIERAZPEN LIBREKO GUNE BERRIAK

Ondoko argazkietan erakusten da non kokatuko diren adierazpen libreko gune berriak:

- Osasun zentroko sarrera-irteeran
- Merkatu plazako horma batean
- Kasablanka

Duela zortzi urte, 2012ko abenduan ipini zituen udalak aurreneko Adierazpen Libreko Gunea, herriko eragileek informatzeko duten eskubidea bermatu, kartelak modu antolatuan jarri, eta kaleko hormak garbiago mantentzeko asmoz.

Hasieran 12 gune egokitu ziren, eta gero beste 4 gehitu. Gaur egun 16 panel daude herriko gune estrategikoetan: Kale Zaharrea (Ona taberna inguruan), Foruen plazan (Sabadell banketxeko izkinan, Irizar loteria denda ondoan eta Udaletxe parean), kiroldegian, Bidebarrieta kalean (DIA-ko horman), Errekalde 49an, Kale Barria 14an (Kirri-neko kantoian) eta 22an (Ene Bada dendako izkinan) Patruie kalen (Mendizabal dendako horman), Santa Marina Plazan (Elkar Hezi ikastetxeko paretan), Lazarraga kaleko 4an, San Lorentzon (12-13 tartean), Olakuan (Super BM ondoan) eta Eltzian.

Azken hilabeteetan udalak jarraipena egin die gaur egun dauden guneei, eta 3 gune berri jartzea erabaki du, adierazpen librerako espazio berriak eskaintzeko eta, informazioa bateratzeko tokia ahalbidetuz, gutxieneko orden batez itsas daitezzen hartarako espresuki jarritako lekuetan. Izan ere, asko dira iragartzen diren ekintza, ekitaldi, jarduera eta gisakoak.

Bide batez, guneak txukun mantentzeko eta erabilera egokia bermatzeko oharrak gogorarazi ditu (ikus taula).

3 GUNE BERRI

Panel berriak non ipini erabakitzeko, jendearen ibilbide ohiturak hartu dira kontuan, eta baita kartelak eta deialdiak jartzeko ohiturak eta joera ere. Hala, honako hiru lekuetan kokatuko dira adierazpen libreko gune berriak: Anbulategiko sarrera-irteerako batean, merkatuko plazako horma batean, eta

ADIERAZPEN LIBREKO GUNEEN ERABILERA

OHARRAK

Adierazpen libreko gune edo panelen erabileraren eta erantzukizun kolektiboaren inguruko bi ohar garrantzitsu gogorarazi nahi ditu udalak:

- Adierazpen libreko gune guztiak **hileko lehen aste-lehenetan** garbituko dira, orain arte bezala.

- Herritarren eta **eragileen ardura** ere eskatzen dugu. Ekintza edo jardunaldi bat iragartzeko kartelak ipintzen direnean, ekitaldi hori pasa ostean **kartelak kentzea** eskatzen dugu.

Askotan, hilabeteak aurrera egin ahal, pasatako jardunaldi edo ekintza asko iragartzeko kartelak hurrengo garbiketa bitarte egoten dira panelean, kartel berrientzako tokia betez eta kartel-pilaketa eraginez. Beraz, denon ardura eskatzen dugu tokiok **txukun mantentzeko**.

ERABILERA SUSTATU

Ekintzak edo bestelakoak jakitera emateko orduan adierazpen libreko gune hauek erabiltzera animatu gura ditugu herritarrek, eta, oro har, ekintza ezberdinak antolatu eta horren berri emateko kartelak jartzen dituzten herriko eragile guztiak.

Kasablankan. Azken hau, gainera, orain dela urte batzuk herritarrek egindako eskaera izan zen.

Panel hauek, herrian dauden beste guztiak bezala, material bereziz egindakoak dira, ur txorroz garbitu daitzkeenak inolako kalterik sortu gabe. ■

EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

'Hazkuntza erotikoa'

Emakumeen Jabetze Eskolak sendo ekin dio 2020-2021 ikasturteari. Orain arteko tailer guztiak ('Irakurketa zikloa', 'Noka ikastaroa', 'Espazio publikoari beldurra gainditzeko gakoak', 'Zoru pelbikoa indartzeko tailerra', 'Musika eta ahalduntzea') martxan daude, plaza guztiak beteta.

Hurrengo ikastaroa (**'Hazkuntza erotikoa'**) abenduaren 18an (17:30-20:00) eta 19an (10:00-13:30) izango da, Maitena Usabiaga sexologo eta psikologoaren eskutik. "Emakumeoi gure izaera sexuatuak ukatu zaigu aspalditik eta plazeretan murgiltzeko zailtasun askorekin topatu izan gara. Erreproduktzioa izan da gure desirarik legitimoena, eta beste guztiak baztertu eta epaitu dituzte heteronormak, koitozentrismoak, falozentrismoak eta beste balio batzuek" adierazi du Maitenak. "Beraz, gure buruarekin konektatu eta subjektu erotikoa garelara ikusi eta onartzea da ikastaro honen helburua". Izen-ematea HAZ bulegoan edo www.onati.eus webgunean. Informazioa: berdintasuna@onati.eus / 943 78 04 11 (010).



SOLASALDIA



'No hay matriarcado, ni en el supermercado'

BAKARRIZKETA SAIOA
IRANTZU VARELAREKIN

Jabetze Eskolak antolatuta, Irantzu Varela kazetari eta militante feministaren 'Matriarkaturik ez, ezta supermerkatuan ere!' bakarrizketa entzuteko aukera izango dugu **abenduaren 16an**, kultur etxeko zine aretoan, 18:00etatik aurrera. (Abenduaren 14a baino lehen eman behar da izena / berdintasuna@onati.eus). Aurretik, *Setem Hego Haizea* elkarteak 'Violencia machista y consumo' gaiaren inguruan egindako azterlanaren emaitzak aurkeztuko dira.

ADIERAZAPENAK

Indarkeria matxistaren kontrako adierazpena onartu du udalak

Emakumeen kontrako indarkeria adierazpen guztien kontrako borrokan duten konpromisoa berresteko adierazpena egin zuen udalbatzak aho batez, azaroko osoko bilkuran.

Udalbatzak bere kezka adierazi zuen, Covid-19aren ondorioz erasotzaileekin egotera behartuta egon diren emakumeek jasan behar izan duten egoeraren aurrean, eta horri buruzko lanketa egin eta halako egoeratan sor litezkeen behar berriei erantzuteko neurriak eta zerbitzuak martxan jartzeko edo indartzeko konpromisoa hartu zuen.

Era berean, udalak konpromisoa hartu zuen instituzioen arteko koordinazio protokoloak hobetzeko, aurrekontu-baliabideak handitzeko, eta indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko. Ildo horretan, herriko mugimendu feminista edo emakumeen kontseilua bezalako espazioak babestu eta indartzeko konpromisoa berretsi du.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Ostalarientzako dirulaguntzak onartu ditu udalak

145.000 EURO BIDERATUKO DITU LAGUNTZETARA

► Terrazetako tasa ere itzuliko die udalak, eta *kuttuna.org* nahiz *oñati.bonoak.eus* plataformetan erositako ostalaritzako bonoak erabiltzeko aukera martxora arte luzatu du.

► Udalbatzak aho batez onartutako laguntzak dira, eta ahalik eta azkarren bideratu nahi ditu udalak.



Udaleko Sozioekonomia batzordeko ordezkari politiko eta teknikoak laguntzak aurkezten

COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, Oñatiko ostalaritza sektoreko enpleguari eta jarduerari eusteko ezohiko laguntza plana onartu du udalbatzak, aho batez. Azaroaren 17an Izaro Elorza, alkatea, eta Xabier Igartua, Sozioekonomia batzordeko burua, herriko ostalariekin bildu ziren hauen egoera eta beharrak bertatik bertara ezagutzeko asmoz, eta bertan jasotakoa aintzat hartuz, hainbat dirulaguntza eta neurri laguntzaileak bideratzea onartu du udalak, itxialdi garaian izan dituzten galera eta gastuei aurre egiten laguntzeko. Laguntza hauek ahalik eta azkarren bideratzea da udalaren asmoa.

» DIRULAGUNTZAK

• DIRULAGUNTZA ZUZENAK

Ostalaritza eta honekin lotutako sektoreentzako dirulaguntzak dira, itxialdiko eta osteko gastuei aurre egiteko. Bi hilabete (azaroa eta abendua) hartuko dira kontuan laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, eta honetan:

- 2 langile edo gutxiago: 800€ / hileko (guztira 1.600€)
- 2 langile baino gehiago eta 5era arte: 1.000€ / hileko (guztira 2.000€)
- 5 langiletik gora: 1.200€ /hileko (guztira 2.400€)
- Eskerak egiteko azken eguna: **abenduak 23**. Jaso ahala tramitatuko dira.
- Laguntza jasotzeko baldintza: establezimendua irekitzeko baimena jasotzen dutenean, gutxienez hilabetez irekita edukitzea.
- Dirulaguntza hauetarako 120.000 euroko diru-lerroa bideratuko du udalak.

• INBERTSIOETARAKO DIRULAGUNTZAK

COVID-19ak exijitzen dituen osasun eta segurtasun protokoloak betetzeko egin behar izan dituzten inbertsio eta ekipamenduetarako laguntzak:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kostu hautagarrien %60 artekoa izan ahalko da. Onuradun bakoitzeko gehienez 3.000€.
- Inbertsioen faktuak aurkeztu behar dira. Azken eguna: **abenduak 23**.
- Dirulaguntza hauetarako 25.000 euroko diru-lerroa bideratuko du udalak.

» NEURRIAK

• TASAK ITZULTZEA

Establezimendua itxita eduki duten garaiari dagokion terrazetako tasa itzuli egingo die udalak ostalariei.

• TERRAZAK EKIPATZEA

Negu aldean eta aforo murrizketek dirauten bitartean, terrazetan itxiturak edo/eta toldoak instalatzea errazteko hirigintza ordenantza egokituko du udalak, kasuan kasu aztertuz eta irizpide orokor bati jarraituz. Oinezkoen iris-garritasuna bermatu beharko da, eta elementu arinak izan beharko dira, erraz kentzeko modukoak.

• EROSKETA BONOAK

Kuttuna.org edo *oñati.bonoak.eus* plataformetan eskuratutako ostalaritzako bonoak kontsumitzeko epea luzatu egingo da, abenduaren 31tik martxoaren 31ra arte. *Kuttuna.org* ekimeneko bonoak agortuta daude, baina *oñati.bonoak.eus* plataforman abenduaren 31ra arteko epea dago diruz lagundutako erosketa bonoak eskuratzeko.

UDAL AURREKONTUAK

Datorren urteko aurrekontuei begirako proposamenak aurkeztu ditu EAJk

2021eko aurrekontuak lantzen ari diren honetan, udal gobernu taldeari helarazi dion proposamen sortaren berri eman du EAJren udal taldeak (ikusiko ondoko tula).

Tartean, 2020ko aurrekontuan jaso baina egin gabe geratu diren proposamen batzuk daude, hala nola: azterketa garaian kultur etxeko ikasgelak irekitzea, adikzioen inguruko adinkako diagnostikoa egitea, eta landa-auzoetako argiteria hobetzea.

Bestalde, EAJk gogoratu du Partaidetzazko Aurrekontuak egitasmoan herritarrek hautatutako inbertsioetako bat (adinekoentzako aire libreko parkea) egin gabe dagoela oraindik eta bereziki garrantzitsua iruditzen zaiela herritarrek erabakitakoa betetzea.

Proposamen hauek, udal gobernuarekin adosteko eta lantzeko borondatez egin dituztela adierazi dute jeltzaleek.

MERKATARITZA-OSTALARITZA

- Covid-19ak eskatzen dituen neurrietara egokitzeko inbertsioak (estufak, karpak, manparak...) laguntzeko diru-lerroa
- Baserriko produktuen salmenta digitala.
- Digitalizaziorako formakuntza programa.
- Tokiko merkataritzaren aldeko kontzientziazio kanpaina.

KULTURA-HEZKUNTZA

- Herri mailako Kultura Sariak abian jartzea.
- DBHn eta Batxilergoan Gogora institutuaren egitasmoa aurkeztea.
- Ikastetxeetako liburutegiak hornitzeko diru-lerroa.
- Musika eskola berrirantz pausoak ematen hasteko kontu saila.
- Azterketa garaian kultur etxeko ikasgelak zabaltzea.

OÑATI IRAUNKORRA

- Euskadi Lagunkoia egitasmoa atxikitzea, zahartze aktiboa sustatzeko.
- Bizikidetza ordenantza idazteko parte-hartze prozesua abiaraztea.
- Olakua-Olapotoko irisgarritasun lanekin jarraitzea.
- Arantzazuko komunak berritzea.
- Urrutxuko zabortegi zaharra zigilatzeke 2. fasko lanak egitea.
- Adinekoentzako aire libreko jolas-parkea.
- Adikzioen inguruko adinkako diagnostikoa.
- Landa-auzoetako argiteria hobetzea, Murgia eta Berezaori lehentasuna emanez.

KIROLA

- Urrutxun atletismo pista eraikitzeke proiektua.
- Azkoagain berriaren proiektuarekin hastea.

>> MOTZEAN

Ganaduzaleentzako deialdia egin du udalak

2021eko udaberrian ganadua Aloña-Urbia-Oltza inguruetan larreratzeko asmo duten ganaduzaleek baimen eskaera egin beharko dute abenduaren 18a baino lehen udaletxeko HAZ bulegoan, larreratuko duten abelburu kopurua, erabiltzen dituzten txabolak eta kontu korrante zenbakia adieraziz. Ganadua Artia-Txirikilaleku-Aitzgain inguruetara larreratzen duten abeltzainek ere egin beharko dute baimen eskaera, tasarik ordaindu beharrik ez duten arren.

Uretako kirol eta sorospen zerbitzuak kontratatzeke deialdia

Zubikoa kiroldegian eta Usakoko bainugunean kirol eta sorospen zerbitzuak kontratatzeke deialdia egin du udalak. Litzitazioaren oinarriko aurrekontua **162.020** eurotan (+BEZ) finkatu da. Udalaren webgunean kontsulta daitezke oinarriak.

ABONU ZATIA ITZULTZEA

Mugiment Kirol Txartela duten kiroldegiko abonatuak ezin izan dituzte eskualdeko instalazioak erabili COVIDaren ondorioz, eta, beraz, Oñatiko Kirol Txartelaren kuotarekiko aldea bueltatzea erabaki du udalak.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



B@kQ

Administrazio publikoetako zerbitzuak eta tramiteak online egiteko identifikatzaile elektronikoa da B@kQ

Udaletxeko HAZ bulegoan eska dezakegu B@kQ-a

Gero eta gehiago dira administrazio publikoan (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Udala, Osakidetza...) modu telematikoan egin daitezkeen gestioak, eta, gainera, COVIDak areagotu eta azkartu egin du tramiteak online egiteko joera.

Horretarako, baina, tramiteak modu seguru eta fidagarrian egin ahal izateko, gure nortasuna egiaztatuko duen identifikatzaile bat behar da, eta Euskal Herriko administrazio publikoari dagokionez, B@kQ da tramite edo izapide horiek egitea ahalbidetuko digun sinadura elektronikoa

IZENPE, Eusko Jaurlaritzako erakundeak ematen duen ziurtagiri kualifikatua da B@kQ. Beste txartel batzuen (*Izenpe, e-DNI, Ona*) funtzio bera betetzen du baina abantaila batekin: B@kQ-a euskarri birtual batean dago eta, beraz, ez du txartel-irakurgailurik

behar; edozein ordenagailu, tablet edo telefono mugikorretatik erabil daiteke, edozein sistema eragilerekin, ezer instalatu beharrik gabe.

Pertsona fisikoei zuzendutako identifikatzailea da B@kQ, eta hiru faktore edo elementu konbinatuta osatzen da: nortasun agiria, pasahitza eta 16 posizioko koordinatu-joko bat.

ZERTARAKO BALIO DU?

Oñatiko Udalarekin eta Euskal Herriko beste edozein administrazio publikorekin online egin daitezkeen kontsultak eta tramiteak egiteko balio du.

Oñatiko Udalari dagokionez, *Oñati.eus* webguneko **Zerbitzu telematikoak** atarian eskaintzen diren tramiteak egin daitezke: dokumentu bati sarrera eman, errolda agiria eskuratu, zerga, tasa edo isunak ordaindu, deialdi ezberdinetarako izena eman....

EROSOTASUNA


Erabilerraza eta, batez ere, oso eroso da B@kQa, udaletxera edo beste erakundeetara joan eta ilaran zain egon barik, hainbat tramite etxeko erosotasunean eta guk nahi dugun orduan egiteko aukera ematen baitu

Horrez gain, Osakidetzako mediku-txostenak kontsultatzeke, errenta aitortpena aurkezteke, trafikoko puntuen poltsa edo isunak kontsultatzeke... eta Euskal Herriko erakunde publiko ezberdinek eskaintzen dituzten tramiteak egiteko balio du.

NON ESKURA DAITEKE?

Udaletxeko H.A.Z. bulegoan eska dezakegu B@kQ-a. Eskatzaileak berak joan behar du bulegora (aurrez txanda eskatuta) eta ezinbestekoa da nortasun agiria, pasaportearen edo gida baimena erakustea (Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea dutenek AIZ edo bizileku txartela eraman behar dute).

16 urtetik gorako pertsona fisikoek soilik eskura dezakete B@kQ-a, eta ezinbestekoa da posta elektronikoko helbide bat eta sakelako telefono zenbaki bat adieraztea.



Eskaera egin ostean, email bat jasoko dugu alta emateko prozesua osatzeko jarraibideekin. Gure datuak ziurtatu, pasahitza aldatu eta lau pausotan aktibatuta izango dugu **B@kQ**-a, oso modu errazean.

Osasun zentroan, KZgunean edota Ogasuneko bulegoetan ere eska daiteke **B@kQ**-a, eta Internet bidez (www.izenpe.eus) ere eskura daiteke, baina, horretarako, aurretik *Izenpe* txartela edo NAN elektronikoa eduki behar da.

B@kQ-a dohainik da. Ez da ezer ordaindu behar.

ERRAZA ETA EROSOA

Erabilerraza eta, batez ere, oso eroso da **B@kQ**-a, udaletxera edo beste erakunde publikoetara joan eta ilaran zain egon barik, hainbat tramite etxeko erosotasunean eta guk nahi dugun orduan egiteko aukera eskaintzen baitu. Gainera, zerbitzu telematikoa garatuz doaz egunetik egunera, aurten bereziki azkartu dira pandemiaren ondorioz eta, beraz, komenigarria da **B@kQ** identifikatzailea edukitzea, gero eta tramite gehiago egiteko aukera izango baitugu etorkizunean. ■

▲
Oñatiko udalaren webguneko (oñati.eus) 'Zerbitzu telematikoa' atalean ikus daitezke gaur egun telematikoki egin daitezkeen tramite edo izapideak

010 eta 092 udaletxera eta udaltzaingora deitzeko doako telefonoak

Oñatitik bertatik egiten diren telefono deietan **010** (udaletxea) eta **092** (udaltzaingoa) zenbakiak erabiltzeko aukera dago. Dei hauek dohainik dira. Hiriburuetan eta zenbait herritan erabiltzen diren zenbaki berberak dira, motzak eta erraz gogoratzeko modukoak. Kanpotik deitzen badugu, berriz, **943780411** (udaletxea) eta **943081000** (udaltzaingoa) deitu beharko dugu, orain arte bezala.

HAZ bulegora joan aurretik txanda eskatu behar da 010 zenbakira deituta

Jende pilaketak saihestu eta COVID-19an exijitzen dituen osasun eta segurtasun neurriak bermatu ahal izateko, udaletxeko HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) bulegora joan beharra izanez gero, gogoratu aurrez hitzordua eskatu behar dela **010** telefono zenbakira deituta. Normalean egunean bertan ematen dute txanda.

Eusko Jaurlaritzara edo Foru Aldundira zuzendu beharreko dokumentazioa HAZ zerbitzuan erregistra daiteke

Foru Aldundiaren eskumenekoak diren tramiteak (familia ugarien tituluak, katastroaren eguneraketak...) udaletxeko HAZ bulegoaren bitartez tramitatu ditzakegu, eta, orain, gainera, Oñatiko udalak Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin sinatu duen hitzarmenari esker, aipatutako erakundeetara edo hauen mendekoetara zuzendu beharreko idatziak eta dokumentazioa HAZ bulegoan erregistratu ahal izango dugu, eta bertatik bidaliko dute dagokion sailera.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 oinati@coinbroker.eus

www.coinbroker.eus

#TerritorioFelicidad liburu arrakastatsuen ondoren (14 herrialdetan dago salgai) *En menos de cien palabras* (Amat Editorial) izenburua duen lan berria plazaratu du Juanma Quellek (Oñati, 1966). Liburu berezia da, ezberdina, gogoeta eragin eta pertsona bezala hazten eta hobetzen lagunduko diguna. Egilearekin izan gara.

Garapen pertsonaleko liburu bat idatzi duzu, eta halako asko daude merkatuan, baina hau desberdina da, berezia.

Bai, garapen pertsonalaren estandarretatik aldendu eta liburu ezberdina egiten saiatu naiz, berritzailea, disruptiboa. Sare sozialetan 70.000tik gora jarraitzaile ditut, eta ohartu naiz horietako askok ez dutela libururik irakurtzen. Horregatik, apustu edo keinu bat ere bada liburu, pertsona horiek deskubritu dezaten testu labur batekin ere (100 hitz baino gutxiago) iritsi zaitezkeela bihotz bat ukitzera edo bizitza bat inspiratzera.

Liburu atsegina eta, batez ere, inspiratzailea egin nahi izan duzu. Zer inspiratzeko?

Aldaketa prozesuak. Garapen pertsonaleko prozesuak buruan gertatzen den 'click' txiki batekin hasten dira. Zerbait mugitzen da zure barruan, eta, bat-batean, betiko ideiak eta iritziak aldatzeko edo berritzeko beharra sentitzen duzu.

Liburu honetan *click* horiek sortu eta bizitza aldatzeko gaitasuna duten inspirazio dosi txikiak aurkituko dituzu, eta uste dut interesgarria dela horregatik. Nik aldaketa prozesu bat hasi nuen duela bost urte, eta

Bizitza aldatzeko indarra duen liburu inspiratzailea

'*En menos de cien palabras*' liburu argitaratu du Juanma Quellek. Garapen pertsonaleko liburu da, pentsamendu ireki, positibo eta pausatuan murgiltzera gonbidatzen gaituena.



gaur egun inoiz baino hobeto bizi naiz, oreka emozionalari dagokionez, batez ere, eta uste dut merezi duela esperientzia partekatzea, prozesu hori abiatu nahi duen orori laguntzeko.


Gustura eta erraz irakurtzen den liburu da, baina hasi eta buka egin ordez, irakurtzeko modua aldatzea proposatzen duzu.

Esan nahi dut ez dagoela zertan ohiko ordenan irakurri. Liburu edozein orrialdetan zabaltzen duzula ere, beti aurkituko duzu harrizko edo inspiratuko zaituen zerbait. Hori da liburu honen magia.

Nire proposamena da, atal bakoitza irakurri ostean, une batez gelditzea, eta gogoeta egitea edukiaren inguruan. Eta hori egin ondoren, zure bizitzako esperientzia batekin lotzea. Helburua da, azken finean, betiko arazoei aurre egiteko ikuspuntu, estrategia eta pentsamolde berriak eskaintzea.

Denok daukagu erreminta kaxa bat eguneroko arazo eta erronkei aurre egiteko, eta, jakina, zenbat eta be-teago eduki kaxa hori, zenbat eta erreminta gehiago eduki emozioak, harremanak edo espektatibak kudeatzeko, orduan eta hurbilago egongo zara zorientasunetik. Eta liburu honek erreminta horietako asko eskaintzen ditu.

2015ean erabateko aldaketa egin zenuen zure bizitzan, eta orduz geroztik, coach lanetan diharduzu, zorian-



«Liburu inspiratzailea da. Hala izan da niretzat, eta hala izaten ari da irakurri dutenentzat ere»

Liburu denda espezializatuetan eta www.juanmaquelle.com webgunean eskura daiteke liburu 15,90€-tan

«Zenbat eta erraminta gehiago eduki emozioak, harremanak eta espektatibak kudeatzeko, orduan eta hurbilago egongo zara zorientasunetik. Eta liburu honetan erraminta horietako asko ematen ditut»

JUANMA QUELLE
Idazlea

tasuna lortzeko estrategiak eta esperientziak partekatzen. Non dago zorientasunaren gakoa?

Bost ardatz edo punturen gainean oinarritzen dut nire lana:
1. Emozio positiboaren dieta

handitzea. **2.** 'Flow' delakoa bilatzea; hau da, denboraren nozioa galtzera eramango nauten gauzak egitea, buruan ditugun zaratak uxatzen lagunduko baitigu. **3.** Harreman positiboak; positibotasuna emango digun harreman-sarea sortu behar dugu inguruan. **4.** Zentzua ematea bizitzari. Nik, esaterako, nire denboraren %25 eskaintzen diot ekintza sozialari, bazterketa arriskuan dauden pertsonen integrazioaren alde. Gustura egiten dut eta asko betetzen nauden lan bat da. Eta **5.** Lorpenak. Zoriontsu izateko lorpenak behar ditugu, txikiak izanda ere, aurrera goazela eta hobeak garela sentitzeko.

Tristeza da, nire ustez, zoriontsu izateko opor garaiaren edo asteburuaren zain egoitea. Zorientasuna eguneroko gauza txikietan bilatzera animatuko nuke jendea.

Liburuak idazten ez ezik,

hitzaldiak ematen ere ari zara geratu barik.

Bai. Pandemia dela eta, aurrean bertan behera utzi ditugu proiektu eta hitzaldi asko, baina 2019a izugarria izan zen; 109 konferentzia eman nituen 55.000 laguneko aforo batekin, Espainian eta Latinoamerikan (Mexiko, Argentina, Peru, Kolonbia...). Urte amaieran, Afrikan ere egon ginen, Ekuatore Ginean eta Gabonen, hango hurrekin lanean, eta, zinez diotsut, bidaia horrek bizitza aldatu didala. Pobrezian, benetako pobrezian, bizi diren pertsonen bizitzan aurrera nola egiten duten ikusteak benetako zirrara eragin zidan.

Non eskura daiteke liburua?

Liburu-denda espezializatu guztietan dago salgai 15,90 eurotan. Nire webgunean (juanmaquelle.com) eskatuz gero, dedikatoriarekin bidaltzen ditut. ■

Ignazio Arregi jesuita hil da

Loiolako Herri Irratiaren sortzaile eta hainbat urtetan Vaticano Irratiko informati-



boetako zuzendaria izan zen Ignazio Arregi jesuita oñatiarra hil zen azaroaren 16an, 89 urterekin. Jesuiten formazioa osatu ostean, Milanen egin zituen kazetaritza ikasketak, eta Loiola irrati sortzaileetako bat izan zen. Euskal irrati-telebista publikoen sorreran ere parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak eskatuta, eta 1986tik aurrera Vaticano irratiaren jardun zuen, erretiroa hartu arte. Ondas saria (1970) eta Rikardo Arregi sariaren ohorezko aipamena (2011) jaso zituen. ■

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiak, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Abendua



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Bertako produktuak kontsumitzean, familia bakoitzaren aztarna ekologikoa eta ingurumenarekiko talka murrizten da. Gozatu Oñati eta inguruan ekoiztutako barazki eta jakiez!



Kultura jasangarriaren txokoa:

La vuelta al mundo de unas zapatillas de deporte" (Korn, W.; Ed. Siruela), Oñatiko Udal Liburutegian maileguan dagoen lanak, gure egunerokotasunean jantzi eta erabiltzen ditugun produktuen jatorri eta fabrikazio prozesuari buruz informatzen gaitu. Non eta nola ekoiztu dira soinean daramatzazun zapatilak?



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Zelanda Berritik zure etxera iristeko, kiwi batek 23.170 km bidaiatzen ditu (www.searates.com). Inguruko baserrietan ere ekoizten direla gogoratu!



Ekimen jasangarri bat:

Taberna eta kafetegietan bertan kafea hartzeko aukerarik ez dagoen bitartean eramateko kafea hartzeko ohitura baldin badaukazu edalontzi berrerabilgarriak erabili (pandemiaren kontrola bultzatzeko neurri guztiak hartuta).

Big Data eta futbola

Eibar futbol taldeko idazkaritza teknikoarentzako lanean jardun du Haritz Azurmendik, datuen analisisian



'Big data deportivo' masterra egin du Azurmendik

Kirol mundura bideratutako datuen analisiari buruzko 'Big Data deportivo' masterra egin du Haritz Azurmendik, eta Eibar futbol taldearen idazkaritza teknikoan jardun du lanean zortzi hilabetez, ikasketa amaierako praktikak egiten.

Big Data delakoa (datu kopuru handiak prozesatu eta informazio bihurtzeko zientzia) bete-betean sartu da gure bizitzako alor guztietan, eta futboleraren ere iritsi da. Ingalaterrako futbol ligan, esaterako, oso hedatua dago Big Dataren erabilera, baina Espainiako ligan ere gero eta talde gehiagok dute datuen analisisirako departamentua.

Futbolari dagokionez, batez ere hiru arlotan aplikatzen da Big Data, Azurmendik azaldu digunez. "Jokalarien errendimendua hobetu eta lesioak prebenitzeko; fitxaketen inguruko erabakiak hartzeko; eta jokoaren analisisa egiteko. Azken arlo hau da gutxien garatuta dagoena."

Jokalarien merkatua arakatu eta fitxaketak egiteko garaian, adibidez, datuen analisiak asko errazten du lana. "Datuek ez dizute esango zein jokalaria fitxatu, baina aukeran 10.000 jokalaria badituzu, datuen analisiaren bidez aurreneko baheketa egin dezakezu, eta zure beharretara hobekien egokitzen diren 20 edo 40 jokalariren zerrenda osatu, denbora gutxian".

Sevilla taldean, adibidez, garrantzi handia du datuen analisiak fitxaketak egiteko garaian, eta, emaitzak ikusita, ez doakie gaizki. "Bartzelona ere apustu handia egiten ari da. Matematikari aditu talde bat fitxatu du, eta software bat garatu dute, Bartzelonaren jokatzeko modua kontuan hartuz, fitxaketa batek eman dezakeen errendimendua kalkulatzeko duena. Harrigarria da, baina hortik doa gaur egungo futbola" azaldu digu Azurmendik. Marketinak eta irudiak ere pisu handia dute

«Datuen analisiak laguntzen du ahalik eta informazio gehien edukitzen, erabaki hobeak hartu ahal izateko»

HARITZ AZURMENDI
Big Datan aditua

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

«Nik ez nuke jokalaria bat fitxatuko jokatzeko ikusi barik, baina ezta haren datuak analizatu gabe ere»

klub handien fitxaketetan, baina Haritzek garbi dauka: "Nik ez nuke jokalaria bat fitxatuko jokatzeko ikusi barik, baina ezta ere haren datuak analizatu gabe".

Big Dataren beste aplikazio bat errendimendurekin lotuta dago. "Jokalarien pultsazioak, egindako esfortzuak eta beste hainbat parametro neurtzeko prestaketa fisikoa egokitu eta lesioak prebenitzen laguntzen du".

Jokoaren analisia egiteko ere erabiltzen dira datuak: adibidez, joko eskema ezberdinen eraginkortasun maila neurtu daiteke, edo zein aldetako eraso jokaldiak diren eraginkorragoak, zelaiko zein eremutan galdu edo irabazten dugun baloi gehiago.... Baina arlo hau da gutxien garatuta dagoena oraindik. "Erabilera deskriptiboa da, batez ere, eta ez hainbeste prediktiboa".

DATUEN INTERPRETAZIOA

Gaur egun industria berri bat garatzen ari da teknologiaren eta kirolaren arteko fusioan oinarrituta. Gero eta enpresa espezializatu gehiago dago (*InStat, Wyscout, FBref...*) datuak neurtzera dedikatzen direnak. Espainia mailan *Mediacoach* da ezagunena; 16 kamera ditu zelai bakoi-tzean, eta adimen artifiziala baliatuz zelaian dauden 22 jokalarien inguruko milioika datu sort-

zen ditu: jaurtiketak, paseak, baloi galerak, buruz irabazitakoak... Partiduetan ez ezik, gero eta ohikoagoa da futbol jokalaria GPS-dun txaleko bat soinean dutela entrenatzea. "Nahi beste datu lor dezakezu gaur egun. Inportanteena da datuak zertarako nahi dituzun garbi edukitzea, eta horiek ondo interpretatzen jakitea" dio Azurmendik.

Datuek ez dituzte golak sartzen, baina garbi dago, Big Dataren onurak gero eta nabarmenagoak direla, eta garaipenak lortzen lagundu dezakeen lanabesa dela. "Datuen analisiak laguntzen du informazio gehiago izaten, gero erabaki hobeak hartu ahal izateko" dio Haritzek.

Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Haritz, baina futbol zale amorratua ere bada. Datuen analisisen inguruko masterra ez ezik, nazional mailako entrenatzaile titulua ere atera du (ikasketa amaierako lana entregatzea bakarrik falta zaio) eta, ahal dela, futbol mundura bideratu nahiko luke bere etorkizun profesionala. Oraingoz Aloña Mendiko harrobiko taldeetan trebatzen ari da, baina inongo aterik itxi barik. Aldi berean, jokalaria gazteentzat Estatu Batuetan ikasi eta futboleko bekak eskaintzen dituen *ASM Scholarships* enpresarekin lanean ari da. ■

>> MOTZEAN

'Bertakoak' guneetan aparkatzeko 168 txartel egongo dira 2021ean

Datorren urterako 'BERTAKOAK' txartelaren altak eta bajak tramitatzeko epean 24 gorabehera egon dira (10 baja eta 14 alta) eta, horrenbestez, datorren urtean 168 ibilgailuk izango dute bertakoentzat gordetako guneetan aparkatzeko txartela. Kale Zaharra ingurua hartzen duen 5. Gunea-n 67 autok aparkatu ahal izango dute, eta Bidebarrieta inguruko 6. Gunea-n 101ek. 'BERTAKOAK' guneetan aparkatzeko baimena duten autoen jabeek abenduan zehar jasoko dute 2021eko txartel-pegatinak postaz, eta dagokion urteko kuota (50€) otsailean kargatuko zaie.

Urrearen Zozketan sarituak atera diren zenbakiak

2020ko URREAREN ZOZKETAN sarituak izan diren zenbaki sarituen berri eman du Gurutze Gorriak. Hauek dira sari nagusiak jaso dituzten zenbakiak: **1. saria** (3.000.000€) **97193** (11. seriea); **2. saria** (1.000.000€) **19439** (11. seriea); **3. saria** (500.000€) **55.012** (98. seriea). Sariak dirutan edo urretan (baliokidea) eskura daitezke. Goian ipatutako sari nagusiez gain, beste hainbat sari ere banatzen dira Urrearen Zozketan, eta www.cruzroja.es/sorteodeoro atarian kontsulta daiteke boletoek saririk ote duten.

Estatuak eragindako indarkeriaren biktimak aitortzearen aldeko mozioa onartu du udalbatzak

Egiari Zor Fundazioak aurkeztutako mozioa onartu du udalbatzak aho batez. Hala, udalak aitortza adierazten die 1978 eta 1999 bitartean estamentu ofizialek sustatu edo praktikara eramandako biolentziaren biktimei, eta egokitzat jotzen du 5/2019 Legeak eskainiko dien erreparazioa, biktima horiek duten egia, justizia eta memoriarako eskubideak egikaritzeko urrats garrantzitsua delako. Ildo horretan, udalak animatu egiten ditu biktimak, dagokien errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskabidea aurkeztera, eta pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du udalak.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

XIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA



Iazko lehiaketako sarituak eta udal ordezkariak

21 komertziok eman dute izena lehiaketan parte hartzeko

Udaleko Sozioekonomia departamentuak XIII. Erakusleihu Lehiaketa antolatu du, Txanda elkartearen laguntzarekin. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbita, eta 21ek eman dute izena. Aurten ere, iaz bezala, 1.500 euro emango dira saritan. Lehenengo hirurak (500, 300 eta 200 eurokoak) epaimahaiak erabakiko ditu, erakusleihoen konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna baloratuta. Ohi bezala, Gipuzkoako Bazkundeko teknikari batek eta erakusleihu-apainketa arloko profesionalek osatuko dute epaimahaia. Herritarrek erabakitako saria (500€) ere emango da.

» HERRITARREN SARIA

Aurten internetez bakarrik eman ahal izango da Herritarren Saria (500€) hautatzeko bozka. Udalaren webgunean (oñati.eus) edo ondoko QR kodea eskaneatuta eman daiteke botua, **abendua 17ko** eguerdiko 14:00ak baino lehen. Bozketan parte hartzen duten guztien artean **200 euroko** saria zozkatuko da. ■



PARTAIDEEN ZERRENDA



- Andrea Azkoaga
- Aranburu bitxi denda
- Arkauz optika
- Artz
- Barue
- Bellotza
- D'Or
- Iramira
- Itziar optika
- Kimu-Urtxin
- Kuttun
- Luar
- Maibi
- Marku
- Mendizabal
- Oreka
- Pinturas Aranburu
- Sesiñena
- Sua
- Trikitx
- Txokolateixa

▲ Abendua 7rako erakusleihioak prest eduki behar dituzte, eta hala mantendu hilaren 31ra arte, gutxienez.

Abenduaren 31 baino lehen kontsumitu behar dira erosketa-bonuak, ostalaritzakoak izan ezik

Gogoratu, **kuttuna.org** eta **oñati.bonoak.eus** kanpainetan erositako bonuak abenduaren 31 baino lehen kontsumitu behar direla, ostalaritza establezimenduetan gastatzekoak direnak salbu; hauek martxoaren 31ra arte erabili ahal izango dira. Gainerako bonuek ez dute baliorik izango abenduaren 31tik aurrera, eta ez da esku-dirurik itzuliko.

oñati.bonoak.eus kanpainari dagokionez, orain arte (azaroaren 29ko datua) **4.903** bonu saldu dira, eta horrek **455.925€**-ko gastua eragin du ekimenera batu diren 75 saltokietan. Oraingoan, **3.131** herritarrek erosi dituzte bonuak (**1.381 online** eta **3.522 offline**), eta udalaren laguntza, orain arte, **87.360€**-koa da. Gogoratu, udalak 110.000€ bideratu dituela ekimen honetara, eta, beraz, oraindik badago bonuak erosteko aukera. ■

Erosi dezagun geurean, erabil ditzagun geureak!



HERRITIK ZUZTARRERA, ZUZTARRETIK HERRIRA
Guztiek merkatariak, ostalaritza eta zerbitzuak



» Oñatz Dantza Taldearen 50. urteurrena

Gure ERRALDOIAK



» Konde-kondesaren erraldioen iruditxoak salgai jarriko ditu Oñatzek, herritarrak berauekin jolastu eta dantzatu daitezzen

Bai, guri ere luze egin zaigu. Ez dizuegu gezurrik esango. Baina Oñatz taldea osatzen dugun guztiok 50. urteurrenari itxura ematen jarraitzeko gozoz gaude, eta proposamen berri bat dakartzuegu.

Jakina denez, garai batean Katalina de Gebara kondesak eta Iñigo de Gebara kondeak agintzen zuten Oñatin, eta aspaldiko urteetan lurpean dauden arren, udaberrian hasi eta udazkenara arte maiz ikusten ditugu kalez kale, jai giroan. Dantzan.

Buruhandiak lagun, batera eta bestera ibiltzen dira auzo nahiz herriko jaietan, besteak beste. Katalina, perlazko lepoko ederrarekin; Iñigo, berri, bizar dotorea eta kapela



► IRUDIAK SALGAI

Kondesa andrea eta konde jaunaren irudiak **abenduaren 5ean, 12an eta 19an** eskuratu ahal izango dira berdura plazan (9:00-13:00)

► ERRALDOIAK PLAZARA

Urtarrilaren 3an erraldoiak plazara aterako ditu Oñatzek. Bi ekitaldi eskainiko dituzte kiroldegian (17:00 eta 18:30). Sarrerak abenduaren 11tik aurrera egongo dira eskuragarri www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan.

beltz-beltza buru gainean duela. Gustuko dute biribilketa, fandango, arin-arin eta balsak dantzatzea.

Aurten, baina, txistulari, soinu-jole eta abarrekin dantzatzeko aukerak urriak direnez, bi erraldoi hauen iruditxoak (argazkikoak bezalakoak) prestatu ditugu, herritarrak berauekin jolastu eta dantzatu daitezzen. Eskuratu nahi dituenak, abenduaren 5, 12 eta 19an izango du aukera, berdura plazan (9:00-13:00).

ERRALDOIAK PLAZARA

Hainbeste maite ditugun erraldoiok kalean ikusteko aukera ere egongo da. Urtarrilaren 3an izango da, Zubikoa kiroldegian. Bi saio eskainiko ditugu: 17:00etan eta 18:30etan. Ekitaldi haue-tarako sarrerak abenduaren 11tik aurrera izango dituzue eskuragarri: www.oñati.eus atarian eta Txokolateixan.

Gurekin bat egin edo ez, osasuntsu egotea desio dizuegu guztioi, hori da-eta beharrezkoa elkarrekin dantzaz gozatzeko.

*Iñigo Murgiondo, Oñatzen
50. urteurreneko komunikazio
taldearen izenean*

Euskarazko izkribuak dituzten Soriako hilarriak Bergaran ikusgai



ERAKUSKETA Bergarako Laboratorium Museoan ikusgai dago 'Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa. Tartean, Soriatik ekarritako sei hilarri daude ikusgai, eta horietatik lautan euskarazko izenak irakur daitezke. Euskararen aztarnak antzinako epigrafian. Gogoratu, izurritea dela eta, momentuz Bergararrek eta mugakide diren herrietako bizilagunek (tartean Oñatikoe) bisitatu ahal izango dutela. Abenduaren 20ra arte egongo da ikusgai erakusketa, ordutegi honetan: asteazken eta ostegunetan 10:00-14:00, ostiral eta larunbatetan 10:00-14:00 / 16:00-19:00, eta igandeetan 10:00-13:00.

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

EAJ ostalaritzaren "alde"

Xabier Elorza, Garikoitz Ibarzabal eta Miguel Angel Palacin (Boga, Arrano, Arkupe, Aker, Pako, Itturri, Izarraitz, Ongi etorri, Ikatz eta Amets tabernen izenean)

Bizi dugun osasun larrialdia dela eta, Eusko Jaurlaritzak ostalaritza ixteko aginduaren ondoren, sektorea arrisku larrian aurkitzen da. Gastu mordo bati aurre egiten jarraitu behar dugu, eta ez dakigu noiz arte eutsi ahal izango diogun.

Testuinguru honetan, asteartea, azaroak 17, EH Bilduko udalak deituta, Oñatiko ostalariek bilera izan genuen. Herriko ostalariez gain, zeharka kaltetutako herriko hornitzaile bat, EH Bilduko bi ordezkari eta "herritar gisa" joandako EAJko ordezkari bat izan ginen bertan.

Bileraren helburua, guri ahotsa emanez, gure eskaera eta ekarpenak entzun, aztertu eta, horren arabera, diru-laguntzak bideratzea zen.

1,5 ordu inguru iraun zuen bilerak. Bukaeran, ohikoa den bezala, bilera osteko bilerak jarraitu zuen. Beste barik.

Gure sorpresarako, bileratik 2 egunera, Goienako webgunean, berri honekin aurkitu ginen:

EAJ-k "berehalako neurriak" proposatu dizkio alkateari ostalariei laguntzeko.

Bertan, EAJk ostalaritzari laguntzeko hainbat proposamen egiten dizkio udalari.

Eta a ze kasualitatea! Proposamen horiek, guk udalari egindakoen berdinak ez dira ba?!

Argitu nahi dugu, ez gatzela bat ostalaritzaren egoera larria erabilera politikoa alderdikoietarako erabiltzearekin.

Gaurdaino, EAJko inor ez da gurekin harremanetan jarri, inork ez digu proposamenik luzatu. "Herritar gisa" joandako ordezkaria ere ez zen guregana hurbildu!

Gainera, Ostalaritza sektorearen eskumena Eusko Jaurlaritzarena da (EAJrena). Eta, momentuz, ez dugu haiengandik inolako laguntzarik jaso. Udaletxetik ez bezala.

"hipokrisia eta erabilera politikoa baztertu eta elkarlanerako momentua da", "elkartasuna, babesa eta konpromisoa". Hauek EAJk esandakoak. Hori bai, esandakoa praktikan jartzea falta zaie! Oñatin, beraien jabetzakoa

den tabernaren alokairuan, tabernariari ez baitote askorik lagundu. Hori bai hipokrisia galanta!

Ekarpenak, datozen lekutik datozela, ongi etorriak izango dira, baina ez gure izenean politikeorik egin ez eta dominarik jartzen saiatu.

askorik lagundu. Hori bai hipokrisia galanta!

Ekarpenak, datozen lekutik datozela, ongi etorriak izango dira, baina ez gure sektorea dominak jartzeko eta politikeorako erabili.

Petra Agirrezabal Belaustegi

Jerardo Elortza

Ehundasei urte beteta fan xaku Petra **Aitzekua**. Sasue bateko San Anton ermittiaren onduan eta harkaitzaren gaiñian jasotako etxetxuan bizi zan Agirrezabaldarren familixako gaztiena. Bost anai-arrebok ezagunak ziran Oñatin arrazoi desberdiñengatik. Gerratekuan batera eta bestera ibiltia tokau xaten eta asko sufrittia. Gerraostian, Frantziatik bueltau eta gero, zerbaitterri heldu bihar-eta, janari-dendia ifiñi euen Patxi, Maria eta Petra anai-arrebak Zarateko etxiaren ertz batian, orain **Aker** tabernia daguen aldamenian. Dendiari be **Aitzekua** esaten xakon. Makinatxo bat urte jardun euen bezerixa zabal baten premiñak aseten.

Fermin Altube Irizar

Jerardo Elortza


Murgialdaiko Aitta Fermin frantziskotarrari be hillabete batzuk bakarrik falta izan xako ehunera aillegaitteko. Azkenaldixan Arantzazuko komentura erretiratu bazan be, aurreko 22 urtietan Bidaurretako hospederixan izan eben ostatu. Tarte horretan Oñatiko gaixak azterketako astixa atara eben. Horren frutu dittugu bi lan interesgarri: **Oñatiko Murgia auzoa** (1999xan), Ferminek oso hurretik ezagutu zittuan baserri, paraje, ofizio, ohitura, lanbide eta pertsonen barri zihatza eskintten doskuna; eta **Cofradía de la Vera Cruz. Oñati 1541-2010** (2011 inguruan), gure herriko kofradixa zaharrenetakuaren historia.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Denboralea Zumaian

 Santi Mendiolaren argazkia aukeratu dugu hil honetan, indar berezia transmititzeaz gain, saritua izan den irudia delako. Zumaian ateratako argazkiak El Diario Vasco-ren Rincones de Gipuzkoa lehiaketa irabazi du, eta egunkariak aterako duen 2021eko egutegian azalduko da.



SANTI MENDIOLA

“Like” (atsegin dut)

Marijo Etxegoien Arzuaga,
EAJ-PNVren zinegotzia

Sare sozialek dakartzaten arriskuak Sasko dira, eta oso desberdinak: besteak beste, *Grooming*-a (gazteenganako helduen sexu-hurbilzea), jazarpen digitala, nesken aurkako sexu-jazarpena, iruzurrak, sextorsioa, eduki desegokiak (indarkeria, gorrotoa, pornografia...).

Ezin dugu ahaztu 2019. urtean, denon ahotan ibili zen IVECO auto-lantegiko beharginaren kasua (2.500 langile). Hain zuzen, Alcalá de Henaresko 32 urteko emakumearen bideoak, 5 urte lehenago grabatutakoak eta eduki sexualdunak,

lankideen artean bolo-bolo ibili ziren. Poliziaren ikerketaren arabera, 200 lankidek zabaldu eta partekatu zituzten bideo horiek. Ondorioz, hainbat asteren buruan, emakumeak bere buruaz beste egin zuen.

La Manadaren biktimaren argazki bat Interneten argitaratu zuen gizonari, bestalde, Iruñeko Epaitegiak bi urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zion. Gizon horrek emakumea bortxatzen ari ziren uneko irudia zabaldu zuen sare sozial batean (Whatsapp). Argitalpen horrek 64 iruzkin jaso zituen eta 13 “atsegin dut”; 16 aldiz partekatu zuten beste pertsona batzuek. Argi esango dut: 64, 13 eta 16 bortxaketa gehiago.

Adierazi behar da goian aipaturiko emakumeen aurkako indarkeria horiek ez direla berriak, baina erabilitako bideak (bideok, irudiak...) «biralak» bihurtuta izan dezaketen hedapena neurtu ezina da. Haria bidean jarri eta dena hasi duen erasotzaileaz gain, ziber-jende askoren laguntza behar izaten da baimenik gabeko argazki bat, bideo bat edo irain batzuk partekatzeke; izan ere, etengabe halako edukiak birbidaltzen eta partekatzen dituzten/ditugun ziber-pertsonak daude/gaude. “Like” sakatu edo/eta horrelako mezu bat partekatzen dugun bakoitzean, biktima behin eta berriz biktimizatzen dugu eta indarkeria horretan parte hartzen dugun pertsonak.

zapore jatetxea

Gosariak ♦ Eguneko menuak
Menu bereziak ♦ Askariak
**HERRITAR GUZTIONTZAT
ZABALIK!**

Mondragon Unibertsitatea
Ibarra zelai, 2
Tel: 671 407 658
zapore.enpresagintza@mondragon.edu

HERRITIK ZUZTARRERA ZUZTARRERAK HERRORA

ERAMATEKO JANARIA
ARTISAU-GOZOGINTZA
GABONETAKO MENUAK

QR code

Gure ekintzen berri emango duen atala...

GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU LAGUNTZEN DATUAK 2020

2020an ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, Oñatiko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du, nobedade nabari batekin: emantzipaziorako dauden arazoei erantzuteko asmoz eskatzeko adina 30 urtetik 35 urte arte igo da. Aipatzea laguntza hauen xedea ondorengoa dela: Oñatiko udalerriari ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko herritarrei, etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea. Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, alokairuko etxebizitzaren erabiltzaile nagusi diren neurrian, gazteek pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, seigarrenez, emantzipaziorako diru-laguntzak banatu ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, eta une hau momentu egokia ikusten dugu diru-laguntzen eta bilakaeraren balorazioa egiteko.

Aipatzekoa da urte pare bat dela eskaera kopurua egonkortuta dagoela 34 eskaera inguru horretan. Banatutako diru kopurua ordea dezente handitu da, iazkoa baino 12.000 euro handiagoa da, aurten 65.642,50 € hain zuzen ere. Gauzak horrela, argi dago diru-laguntza hauek gure herrian eta gure herriko gazteen artean egonkortu direla.


Ezin ukatu Oñatiko gazteen artean diru laguntza honek izan duen eragina nabarmena izan dela. Gazteak emantzipaziora animatzen ari dira, argi eta garbi, eta gainera gero eta baldintza hobean (Aurtengo ere eskaeren %97a bizikide bakarreko edo bi bizikideko alokairuentzat da, eta horrek egonkortasun maila bat lortu dela adierazten digulakoan gaude).

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, berriro ere nesken eskaera-kopuruak gora egin du, eta bigarrenengo urtez nesken emantzipazio kopurua altuagoa de mutilena baino. Zalantzarik barik neska gazteen kolektiboan positiboki eragiten ari garelakoan gaude.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmentzeko beste datu bat, eskatzaileen %89ak 25 urte edo gehiago ditu. Horrek azaltzen digulako adina horren aurretik emantzipatzeko zelako zailtasunak dauden.

Gauzak horrela, laburbilduz, aurten ere Oñatiko Udalaren izenean egiten dugun irakurketa oso positiboa da. Izan ere, gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari garelako, eta Oñatiko gazteen ongizatean zuzen eragiten ari garela uste dugulako.

Ion Lopez Santamaria
Haur eta Gazteria Teknikaria



AGENDA 2020.12.12 Willis Drummod. Gaztelekuan (17:00 eta 19:00), sarrera 8€. | 2020.12.19 Gazteleku eta Ludotekaren eskutik Bizi bizia proiektua; zumeen landaketa Bidaurreta aurrean (goizean). Aurrez izena eman beharko da. | 2020.12.23 Olentzero eta Mari Dominginen bila, Gaztelekuko kuboan (17:00). | 2020.12.26 Gaztelekuko Topalekua, Ginkana – ibilbidea (17:00). | 2020.12.27 Laburbira laburmetraien emanaldia, (17:00 kubokoentzat, 18:30 topalekukoentzat). | 2020.12.28/29/30 Ludotekako ekintza bereziak, (10:30 – 13:30) sarrera irekia. | 2020.12.30 Gaztelekuko kuboaren eskutik Berdura plazan, Kanpaikadak. Mila Modu + Gonbidatua. Gaztelekuan (18:30), sarrera 6 €.

Euskara gaitzat



Egilea: Urko Egaña | Doinua: Esaera zaharra da (maisuari)

1.- Euskera gaitzat hartuz bertsoak jartzera noa aztertu nahian bere egoera. Inork frogatzea nahi badu bere era, ateratzea baino ez dauka kalera.

5.- Badira euskeraz oso ondo dakitenak eta hitz egin hala egiten dutenak. Baina batzuk badaude oso nabarmenak erderazko euskeraz aritzen direnak!

9.- Euskal nortasunaren prekarietatea aintzat hartuta nahi dut gauz bat esatea! Desberdinak direla ay lagun maitea... euskaldun sentitzea eta izatea!

13.- Horregatik eskatzen dizuet bihotzez, euskeraz bizitzen ez egoteko lotsez! Gure hizkuntza zaindu dezagun ohorez. Pentsa dezagun gutaz ta ondorengoez!

2.- Zorrotzegia izan naiteke akaso, ur tanta ez nuke nahi bihurtu itsaso! Ereiten den lurretan dena da arazo beti nahi dugulako hoberena jaso.

6.- Euskeraz badakiten familien treta, zenbaiten kasuan ez dugu berriketa. Gurasoen artean gazteleraz eta seme-alabei berriz euskeraz tarteka.

10.- Mingarrien denean ikusten den dena, usaimena bezala dugu ikusmena. Tripak nahasteraino sartzen zaizu pena, eta beti euskera da kaltetuena!

14.- Jendeak dio oso ezkorra naizela eta gauzak askoz hobeto daudela! Euskera ikusten dut latiña bezela, laster eskolan soilik ikusiko dela!

3.- Asko entzun dut ustez "euskeraz" egiten, baina zail da euskera ote den jakiten! Nahiz ahotik euskeraz hiru-lau hitz irten, ez nago ziur hoiek euskeraz dakiten!

7.- Eskolei esker asko dakite euskeraz nahiz kalean hitz egin ohi duten erderaz! Zertan sakon hausnartu badaukagu beraz! euskera mailaz eta bere erabileraz!

11.- Euskera perfektu bat ez dut sustatu nahi, baina euskera osasuntsu ta indartsu bat bai! Batzuk ez dira euskeraz bizi izateko gai erderara pasatzen direlako noiz-nahi!

15.- Hori horrela izan ez dadin gerora, ez dugu zertan galdu hainbeste denbora! Etxean ere bizi gaitzean gustora euskaraz egin behar da etxetik kanpora!

4.- Euskerari egin nahi die propaganda "eskerrik asko", "txiki", "gau pasa", "parranda" ta antzerako beste zenbait hitz esanda, oinarrizko hizkuntza erdera izanda...

8.- Francoren agindua ta erabakia zen gure arbasoek zuten ebakia! Baina zauri horrek badu bere tapakia... Zein da guk jarri behar dugun aitzakia?


12.- Baldin euskeraz bizi nahi badu herriak hartu behar litzuzke behar diren neurriak! Hortaz, hartu ditzagun ohitura berriak egingo zaizkigunak mesedegarriak!

16.- Neure buruarekin neu naiz kritikoen, baina euskal hiztun batek nitaz zer dioen nahi nuke entzun guzti hau bota ondoren, esan dudana gaizki edo ondo dagoen!

BANATZAILE BAIMENDUA

<p>Zuntza 600 Mb Simetrikoko</p> <p>Mugikorra 7 GB + Del mugagabeak + telefono finkoa 1GB-ko linea bat duen</p> <p>IRAUNKORTASUNIK GABE</p>	<p>42 € HILEAN BEZA barne</p> <p>BETIRAKO</p>	<p>LIZKER INFORMATIKA</p> <p>KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati 943 09 06 00</p> <p>guuk</p> <p>ZUNTZA MUGIKORRA TB</p>
---	--	--

BEZa barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indarrean Euskadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko duako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hausten bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifako lineen prezioak izango dituzte, GB eta duetarako murrera kopuru beartekin. 1GB-ko duako Guuk tarifaren kasuan, prezio berria 4,9€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" paketea bakoitzeko linea eraginkorren gehiengoa Kopuru 4 izango da, linea nagusia kontutan hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du lekuartasunik edo zigorik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikor nazionalentzako del mugagabeak, 7GB eta 40MB rokin. Muga hori gainditzean, abiadura 16 Kbit/s ia jaitsiko da. Nahi duzunon eman diezazkiezu baja zerbitzuari, baina ikusarazleko 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 1216-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontsultatu gainerako baldintzak hemen: www.guuk.eus



» ESTEBAN IRUSTA MALLEA / Parrokiako organojolea

"Organoa ezagutzeko eta ikasteko aukera eskaini behar diegu gazteei"

Edozein musikazalerentzat gauza ederra izaten da organo musika entzutea, eta Oñatin, zorionez, badugu horretarako aukera San Migel parrokiari, Agustinoetan, Bidaurretan, Santa Anan, Benediktinetan edo Arantzazuko basilikan, besteak beste. Baina, tamalez, organojoleak gutxituz doaz eta, neurrikerik hartu ezean, laster organo horiek mutu geratzeko arriskua dago.

Esteban Irustak, parrokiako organistak, azkenaldian buruan darabilen kezka da hori, eta publikoki partekatu nahi izan duena. "Lehen apaiztegietan eta komentuetan ikasten zen organoa jotzen, baina gaur egun organo ikasketak ez dira ia inon ematen, eta, ondorioz, herri askotan organo bikainak eduki arren, horien soinu zoragarriak entzuteko aukera gutxi dago,

» **Gaur ez dira ia inon ematen organo ikasketak, organo-jotzaileak gutxituz doaz, eta gure herrietako organo eder asko mutu geratzeko arriskua dago**

» **Organoak tradizio handia du Oñatin. Organogile tailer bat egon zen gure herrian ia bi mendetan, eta organojole handiak ere izan ditu Oñatik. Pena litzateke hori galtzen uztea**

gero eta organo-jotzaile gutxiago dagoelako".

Irustak gogorarazi digunez, Oñatik harreman estua izan du organoarekin historian zehar. "Organogile tailer bat egon zen Oñatin ia bi mendez, XVII eta

XIX. gizaldien artean, eta ospe handiko organogileak eman zituen, haiek egindako lanek erakusten duten moduan".

Oñatik eman dituen organojotzaileen artean ere izen handiak ditugu: Julian Sagasta, Aita Madina, Julian Zelaia...

"Eta ez dugu ahaztu behar" gaineratzen du Irustak, "Mikel Deunaren parrokiari benetako altxorra daukagula, bertako organoa Gipuzkoako bost hoberenen artean baitago, Jose Ramon Azkuek eta beste aditu batzuek diotenez. Beraz, balio handiko ondarea dugu, eta uste dut udalak bere gain hartu beharko lukeela altxor hori zaindu, babestu eta sustatzeko ardura. Pena handia litzateke tradizio eta ondare hori guztiori galtzen uztea".

GAZTEEI BEGIRA

Baina organoa bizirik mantendu nahi badugu, Irustak garbi dauka gazteengan ipini behar dugula fokua. "Organoa ezagutzeko eta ikasteko aukera behintzat eskaini behar diegu, eta hortik etorriko dira fruituak. Musika sentitzen duen edonor maitemindu egiten da organo musika entzutean. Baina, horretarako, aurrena organoa ezagutzeko aukera izan behar dute gazteek".

Ildo horretan, gogoeta plazaratu bakarrik ez, hariak mugitzen ere hasi da Irusta, eta, hala, Oñatiko musika eskolako zuzendaritzarekin ere bildu da, organo eskolak emateko aukerak aztertzeko.

Musika eskolako zuzendari-tzatik esan digutenez, ondo ikusten dute organo ikasketa emateko aukera, baina aurretik aztertu beharra dago interesik ba ote dagoen eta irakasle bat ekartzeko aukera dagoen. Eskola barruan aztertuko dute gaia, aukera ezberdinak mahai gainean ipinita, eta ez dute baztertzeko hurrengo ikasturtera begira organoa ikasteko aukera eskaintzea. "Ikusten badugu jendea badagoela organo ikasteko gogoz, guk ez diogu horri aterik itxiko" adierazi digute. ■

Telleriak Oñatin

Las tejerías en la villa de Oñati

liburua idatzi du Jose Ramon Arrazolak. 150letik 1994ra bitartean Oñatin egon ziren 22 teileria dokumentatu ditu



Oñatiko azken teilagiña da Jose Ramon Arrazola, eta artxiboetan arakatu zalea ere badenez (*Historias de San Cristobal de Olabarrieta* eta *Sobre los Arrazola* liburuak idatziak ditu aurretik), ongi ezagutzen duen ofizioari buruzko lana argitaratu du oraingoan. Hain zuzen ere, bere birraitona Francisco Arrazola Echevarriak (1853-1916) Olabarrietan sortutako teileria izan zen Oñatin ezagutu dugun azkena; 1994an itxi zituen ateak, 97 urteko jardunaren ostean.

Baina Arrazaolatarrena ez zen izan teileria bakarra Oñatin, ezta gutxiago ere. Teilagintza, tradizio handiko ofizioa izan da Oñatin, eta Arrazolak hogeita bi teileria dokumentatu ahal izan ditu, Gipuzkoako Protokoloen eta Oñatiko udalaren artxiboetan aurkitutako akta eta dokumentuen bidez.

1501ekoak dira aurkitutako aurreneko erreferentziak, eta garai hartarako Oñatin bost teileria zeuden. Kopuru handia zen hori, inguruko herriekin alderatuz, baina badu bere azalpena, Arrazolaren ustez; "gairai hartan Oñati Euskadiko herririk inportanteenetako bat zen, ia Bilbok adina biztanle zituen, eta adreilu nahiz teila eskari handia egongo zen etxeak eraikitzeko. Industria hasiberri hartarako behar adina buztin ere egongo zen, bai kopuruz eta bai kalitatez ere, eta horrek ekarri zuen teilagintzaren kultura Oñatin errotzea".

Teileriak ez ezik, teilaginak ere ugari

izan ziren herrian, eta ohikoa izaten omen zen herriko teilagin-kuadrillak Araba, Nafarroa eta Gaztelara joatea, San Migel Txikitik San Migel egunera arte luzatzen zen kanpainen lan egitera.

TEILERIA MOTAK

Hiru teileria mota egon ziren Oñatin, jabetzari dagokionez: herri-teileriak, auzo-teileriak eta pribatuak. Lehenak udalarenak ziren eta errentan uzten zituen, baldintza zorrotzen pean: adeilu eta teilen neurriak, prezioa, instalazioen mantentzea...

Teileria komunalak auzoko beharrei erantzuteko erabiltzen ziren. Herri lurretan egoten ziren eta udalaren laguntza jasotzen zuten mantentze lanetarako eta su-egurra eskuratzeko. Araotzen eta Arantzazun egon ziren halakoak, eta, agian, Zubillagan ere bai, Arrazolak aipatzen duenez.

Jose Ramonek dokumentatu dituen teilerietatik 9 udalarenak ziren, 4 auzo-tarrenak, eta 9 pribatuak.

Teila eta adreiluekin batera, karea egiteko ere aprobetxatzen ziren teilerietako labealdiak. Lana egiteko moduari dagokionez, teileria gehienak artxibatuak ziren eta eskuz egiten ziren lan guztiak, produkzioaren mekanizazioa ez baitzen Oñatiko teilerietara iritsi 1930 ingurura arte.

Fabrikazio prozesuaren inguruko xe-

hetasun guztiak azaldu ditu Arrazolak liburuan: zein buztin mota erabiltzen zen; nola atera, nola nahastu eta nola lehortzen zuten; zein erregai mota erabiltzen zuten; materialen garraioa nola egiten zen; nola kokatzen zituzten piezak labean; labeen funtzionamendua; teila eta adreilu motak...

Adreiluez ari dela, aipamen berezia egiten dio Bidaurretako komentuari, bertako klaustroan eta galerietan XVI. mende hasieran egindako aderiluak baitaude. "Benetako altxorra, duela bost hilabete baino gehiago egindako adreiluak ikertu nahi dituenarentzat".

Liburuaren azken atalean, Oñatiko antzinako telleriak zehazki non egon ziren kokatzeko ahalegina egin du Arrazolak.

Liburu interesgarria, zinez, Oñatiko teilerien historia ezagutu nahi dutenentzat. Egileari deituta (679178562) eskura daiteke liburua, eta udal liburutegian ere utzi du ale bat, kontsultatu ahal izateko.



 **ZURICH**
M^o del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

POZ

bizi-ohitura osasuntsu eta aktiboak sustatzeko zerbitzua orain **herritar guztiei irekia**

Iaz jarri zen martxan Oñatin POZ zerbitzua, Udala, Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanari esker. Herritarren artean bizi-ohitura osasuntsuak sustatzea eta sedentarismitik bizitza aktibora pasatzea helburu duen orientazio zerbitzua da POZ.

Orain arte, osasun zentroko mediku eta erizainek bideratutako adineko pertsona ez-aktibo eta sedentarioekin egin dute lan, baina, orain, urrats bat gehiago ematea erabaki dute, POZ zerbitzua herritar guztiei zabalduz, adin muga barik; hau da, jarduera fisikoa egin edo bizitza aktiboa eta osasuntsua izan nahi duen edozein herritarrek baliatu ahal izango du zerbitzua.

Athlon enpresako Jokin Atxaga da POZ zerbitzuko orientatzailea, eta berak prestatzen ditu zerbitzura jotzen duten pertsonen ezaugarrien eta beharren araberrako ariketa planak. Garbi geratu behar da, hala ere, POZ zerbitzuaren helburua ez dela kirol errendimendua hobetzea (horretarako prestatzaile fisikoak daude), bizitza aktiboagoa izan nahi duten herritarrei jarraibide

edo pautak ematea baizik.

Hasieran anbulatorioan zuen egoitza POZ zerbitzuak, baina COVIDaren ondorioz atera egin behar izan dute handik, eta udal zerbitzu ezberdinetan eskaintzen da gaur egun, astean hiru egunetan (ikusitako taula).

HERRIKO ERAGILEEKIN ELKARLANEAN

Zerbitzu pertsonalizatua emateaz gain, herriko beste eragile batzuekin elkarlanean ere badirhardu POZ zerbitzuak, besteak beste, ESKOLA KIROLA programarekin. Bizi-ohitura osasuntsuak gazteen artean sustatzeak duen garrantzia kontuan hartuz, hainbat ekitaldi antolatuko di-

POZ ZERBITZUAREN ORDUTEGIA

- **Astelehenak:** 16:00-18:00 (telematikoki)
- **Asteazkenak:** 15:00-19:00 (Gizarte Zerbitzuen bulegoan — Bidebarrieta, 12—).
- **Ostegunak:** 09:00-12:00 (Txipistin zerbitzuaren bulegoan — San Juan kale, 18—).



Harremanetarako:

- poz.oinati@athlon.es
- 663035919



tuzte ikasturtean zehar, kirola egitearen onuren edota elikadura osasungarriaren inguruan, besteak beste.

Ildo berean, herriko DBH-4ko ikasleei zuzendutako tailerrak antolatzeko asmoa ere badute, nerabezaroan kirola uzteko joera duten gazteei begira, bereziki. Pake Leku eta Lagun Leku elkarreetako kideekin lana egiteko asmoa ere badute.

Gogoratu, beraz, POZ zerbitzua herritar guztientzat ireki dela, eta edonork jo dezakeela bertara orientabide edo laguntza eske. ■

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



AHOLKULARITZA ZERBITZUA ELTZIAKO FITNESS GELAN



ABENDUA						
A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

▲ Orientazio zerbitzuaren abenduko ordutegia. Kolore larrosaz, goizeko ordutegia (07:30-14:15), kolore morez arratsaldekoa (14:15-21:30), berdez larunbatakoa (09:00-13:30 / 15:00-19:30) eta horiz igandekoa (09:00-13:30). Kontaktua: fitness.oinati@athlon.es

Eltziako fitness gelan ere eskaintzen du aholkularitza eta orientazio zerbitzua Athlon enpresako Jokin Atxagak. Jarduera fisiko osasuntsua sustatzea da hemen ere helburu nagusia.

Gimnasioan dauden makina eta bestelako ekipamenduak egoki erabiltzeko aholkuak ematen ditu Atxagak, lesioak ekiditeko, batez ere, eta, horrez gain, pertsona bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitutako ariketa-taulak prestatzen ditu: pisua gatzeko, bizkarreko mina prebenitzeko, abdominalak eta beste gorputz atalak indartzeko, entrenamendu funtzionalak... Batez ere osasunera bideratutako zerbitzua da, eta ez kirol errendimendua edo markak hobetzera zuzendutakoa.

Zerbitzua dohainik da, eta kiroldegiko bazkide guztiei zuzenduta dago.

Aurrerago, Zubikoa kiroldegiko fitness gela berria zabaltzearekin batera, tailer edo ikastaro espezifikoak antolatzeko asmoa ere badu. ■



Argk.: Abxintxika Triatloi Taldea

Txirrindularitza egokituko Espainiako txapelketan parte hartu du Azkaratek

Azaroko lehen asteburuan Cartagenan (Murtzia) jokatu zen txirrindularitza egokituko Espainiako txapelketan parte hartu zuen Joseba Azkarate oñatiarrak. Iazko Soraluze-Bergara lasterketan proba egin ostean, hauxe izan da aurreneko lehiaketa ofiziala oñatiarrarentzat. Lineako eta erlojupeko probetan lehiatu zen, eta emaitzei gehiegi erreparatu gabe, gustura dago han bizi izandako esperientziarekin eta erronka bat gehiago gainditu duelako. Kirola egiteak bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dio, eta horixe da garrantzitsuena. Edozein modutan, ikasten eta lehiatzen jarraitzeko gogoia adierazi du.



2021
denboraldiko
bizikletak!



oñabike

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ERIPAZIOAK

oñabike.com

Otadui 25, Oñati
Tel.: 943 78 05 65

1.- SOLASALDIA: 'Eragileen egungo egoera'

Anton Inza



Nerea Uriarte



Asier Osinaga

2.- SOLASALDIA: 'Herri osasuntsua, herri indartsua'

Maite Anton



Jokin Atxaga



Rosa Lasagabaster

3.- SOLASALDIA: 'Aitzakia eta muga guztien gainetik'

Joseba Azkarate



Josune Odriozola



Saioa Varela

MAHAI-INGURUA GOIENA TELEBISTAN ABENDUAREN 18AN (22:00)

Herriko kirola pandemia garaian

Covid-19ak herriko kirolean izan duen eragina aztertu, eta esparru honetan izango diren erronkei buruzko solasaldia Goiena telebistan ikusi ahal izango da abenduaren 18an. Ondoren, udalaren Youtube kanalean zintzilikatuko da.

Gizarteari bezala, kirolaren munduan dabilzanak ere, gogor astindu ditu Covid-19 pandemiak. Martxoaz geroztik, oso gutxi izan dira euren jarduna arazorik gabe jorratu ahal izan dutenak. Hori horrela, abenduaren 18an herriko kirolari,

«Kirol solasaldiaz gain, sukalde, turismo edota arte kontuek ere, bere tartetxoak izango dute saioan zehar»

talde, antolatzaile eta udaleko kideak, Soraluze ostatuan elkartuko dira azken hilabeteetan izan dituzten zailtasunak partekatu, eta aurrera begirako erronka berriei buruz hitz egiteko.

Azken bi hamarkadetan, abenduko agendan hain errotuta zegoen 'Kirol Sariak' ekitaldiak utziko duen hutsunea betetzera etorriko da mahai-ingurua: «Pandemiaren eraginez ezingo dugu ohiko sari ekitaldia antolatu. Hori horrela, herriko kirolariak hilabete guztietan izan duten jarrera ona azpimarratu, eta nola dauden jakin nahi dugu. Eragile ezberdinak elkartu eta denei ahotsa emanez, etorkizunean egin beharko ditugun egokitzapenei elkarrekin aurre egiteko nolabaiteko topaketa izango da» adierazi digu Maite Anton kirol batzordeburuak.

TELEBISTA ETA STREAMING BIDEZ

Solasaldiak interes handia piztu dezakeela uste da eta aretoek dituzten mugak ikusirik, publikorik gabe egitea erabaki da. Dena den, Goiena telebistak, herriko etxe guztietara zabalduko du mahai-ingurua abenduaren 18an (22:00etan). Eta hurrengo egunetik aurrera, udalaren Youtube kanalean ere, ikusgai egongo da.

Aratz Losadak gidatuta, ordu eta erdi inguruko iraupena izango du saioak eta hiru bloke ezberdinetan banatuko da: aurrenekoan, kirol munduko eragileek hitz egingo dute. Bigarrena instituzionalagoa izango da eta besteak beste, Zubikoako lanen egoeraz, edota udalak kirol zerbitzuetan urte berrirako izango dituen asmoetaz arituko dira.

Hirugarren eta azken emanaldiak, herriko hiru gazteren gaintitze istorioak bilduko dizkigu. Jarduera fisikoaren laguntzari esker, osasun arazo larri bati aurre nola egin dakioken azalduko dute solaskideek.

Oinarrian kirol kontuak landuko badira ere, sorpresa bat baino gehiago egongo dira. Dendari, artista, nutrizionista edota turismo kontuek, zeharka bada ere, presentzia izango baitute saioan zehar.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



ERTZETIK



KULTUR ERREFERENTZIAK PARTEKATZEKO IRRATSAIOA

Xabier Etxebarriak gidatzen duen saioa hileko azken ostiraletan emititzen da Oñati Irratian



Kartelaren diseinua, Ane Agirre

► Hileko azken ostiraletan (20:00) Oñati Irratian (FM 107.4) edo, bestela, IVOOX.COM-en entzun daiteke *Ertzetik* irratsaioa. Izen bereko Facebook-eko orrian hileroko saioari buruzko informazioa aurkituko dugu.

Hurrengo saioa abenduaren 25ean izango da.

Ikasturte berriarekin batera, saio berria dugu entzungai Oñati Irratian, Xabier Etxebarriaren eskutik. Gaztetxeko asanbladan eman dako urteetan eragile aktiboa izan zen Xabier, kontzertu, hitzaldi eta bestelako kultur ekitaldiak antolatzen, eta gaztetxea utzi ondoren irratsaio bat egitea pentsatu du, bere ekarpena egiten jarraitzeko asmoz.

Literatura, zinea eta, batez ere, musika zale amorratua dugu Xabier, eta han-hemenka jasotako kultur erreferentziekin osatu eta aberasten du saioa. Gai jakin baten inguruan antolatzen du irratsaio bakoitza. Aurreneko saioan, irailean, 'Ez-jaiak' izan zituen hizpide; urrikoan 'DUT' rock taldearen historia errepasatu zuen, hari buruzko liburua idatzi dutenekin, eta azarokoan Oñatiko *Larru beltzak* taldearen disko berriaren aurkezpena egin zuen.

Hilero gai ezberdin bat jorratzen du, alternatiboak diren eta ertzeko posizioetatik sortutako ekimen, borroka edo mugimenduei leku eginez. betiere. Hortik izenburua. Hurrengo saioetan, *Black Lives Matter* mugimendua eta irratigintza izango ditu hizpide, beste beste.

Saio irekia, anitza eta parte hartzailea izatea nahi du Xabierrek, eta entzuleen iritzi eta proposamenak jaso nahi lituzke.

 **ARRIZABALAGA**
Aroztegia

 **PAKITA**
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



'OROIMENEAN'

Hots Abesbatzaren lehen diskoa laster kalean

Alzheimerraren inguruan iaz eskaini zuten 'Oroimenean' ikuskizuneko abestiak grabatu dituzte diskoan

Abenduaren 11n jarriko da salgai 'Oroimenean' diskoa, Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen Hots Abesbatzaren aurrenekoa.

Iazko irailean, alzheimer gaitza bistaratu eta gizartea kontzientziatzeko asmoz, Hots-ek eskaini zuen 'Oroimenean' ikuskizuneko hamar abesti bildu dituzte CDan: *I remember* (Sarah Quartel), *Ume eresiak* (Josu Elberdin), *Haizeak dakar* (Xabier Sarasola), *Snow angel* (Sarah Quartel), *Munduari begiratzeko* (Xabier Sarasola), *Maite nau* (Josu Elberdin), *Bi bihotz* (Junkal Guerrero), *Hasiera bat* (Manuel Soler), *Etxean* (Junkal Guerrero) eta *Taupaka* (Junkal Guerrero). Azken biak, ikuskizunerako berariaz sortutako kantak.

Azkoitiko Santa Krutz komentuan grabatu zuten diskoa, eta Hots abesbatzako kideez gain, Eli Mendiaraz (pianoa), Ander Zulaika (perkusioa), Mikel Emezabal (klarinetea), Alazne Quintanilla (biolin 1), Amaia Garro (biolin 2), Jabier Retegi (biola) eta Jokin Garmendiak (biolontxelo) ere parte hartu dute. Testuak Andoni Salamerorenak dira. ■



Abenduaren 11tik aurrera, Txokolateixan, www.ganbarofaktoria.eus webgunean eta Hots abesbatzak abenduaren 19an eskainiko duen kontzertuan eskuratu ahal izango da CDa, 10 eurotan

KONTZERTUA

'Lux'

Urteroko ohiturari eutsiz, Gabon garaiko kontzertua eskainiko du **Hots** Abesbatzak abenduaren 19an. Argiak Gabonetan duen esanahia eta sinbolismoa kontuan hartuz, *Lux* (argia, latinez) izenburua ipini diote emanaldiari, eta estilo zein garai ezberdinetako 16 pieza abestuko dituzte; 16 perla edo altxor txiki, batzuk erlijiosoak, beste batzuk paganoak, baina argiaren ikuspuntu ezberdinak jorratuz betiere.

Pieza batzuk *a capella* abestuko dituzte, eta beste batzuk pianoa, biolontxelo edota kanpaien soinuak lagunduta, mimo handiz zaindutako eszenaratze eta argiztapenarekin.

Hots Abesbatzarekin batera, Amaia Zipitriak (pianoa) eta Jokin Garmendiak (biolontxelo) parte hartuko dute, Aitor Biainen zuzendaritzapean. **Abenduaren 19an** izango da kontzertua, parrokiaren (12:00). Sarrerak *online* erosi ahal izango dira.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

'ETERNAL LIGHT'

Orkestrak lagunduta, kontzertu berezia eskainiko du **Ganbara Abesbatzak**, abenduaren 27an

Aequss Ensemble, 30 musikariz osatutako orkestra sinfonikoa lagun duela, kontzertu berezia eskainiko du Ganbara Abesbatzak abenduaren 27an, Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean.

Eternal Light izenburua ipini diote kontzertuari, izan ere 'BETIKO ARGIA'ri erreferentzia egingo dion emanaldia izango baita, zuzendariak azaldu digunez. "Musika erlijiosoa eta profanoa nahastuko dira, baina obra guztiek irudikatuko dute argi jakin baten espiritua: pertsona baten oroitzapena, pertsonen sentimenduak, amaren maitasuna...". Morten Lauridsenek requiem eran konposatutako 'Lux eterna' izango da pieza nagusia; Lauridsenek bere ama zendu zenean idatzitako obra da. Argiztapen bereziz jantzitako ikuskizuna izango da.

Oñatiko parrokian (19:00) izango da kontzertua eta sarrerak online eskuratu ahalko dira.

» 30 musikariz osatutako orkestra eta 45 abeslari ariko dira Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean



'JAN DEZAGUN, ON EGIN !'

ipuin musikatua taularatuko du **Ganbara Kantu Eskolak**

Fruta, barazki, lapiko eta zartaginez inguratuta agertuko dira taula gainera Ganbara Kantu Eskolako neska-mutikoak **urtarrilaren 4an**. *Let's eat* (Jan dezagun) musikalaren moldaketa eskainiko digute. Hasiera batean, udaberrian egin ohi den 'Kantua Kalean' egunean aurkezteko asmoa zuten, baina Covid-ak bertan behera utzi zituen asmo guztiak, eta orain ikuskizunari bueltaxo bat eman eta antzokirako prestatzen ari dira.

Antzerkia eta musika tartekatuz, janariarekin lotutako ipuin musikatua da '**Jan dezagun, On egin!**'. Elikagaietan hain oparoa den lurrean bizi izatearen zortiaz eta esker onekoak izatearen garrantziaz hitz egiten duen istorio zapo-retsu eta alaia da, familia giroan ikusteko. Ganbara Kantu Eskolako haur nagusienak izango dira protagonista eta *Maxk* munstroak ere parte hartuko du.

Santa Ana antzokian (17:30) izango da emanaldia eta sarrerak Txokolateixan jarriko dira salgai (helduak 8€ / haurrak 5€). Dena beteko balitz, bigarren saio bat taularatzeko aukera aztertuko dute.

Betirako gordeko dituzun momentuak

Natxo Santos
ARGAZKILARIA

Olakua 7
T. 688 641 036

f i

JAUNARTZEAK, URTEURRENAK, BAKARKAKO SESIOAK... ETA N.A.N. ARGAZKIAK Natxo Santos Argazkilaria

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

OHARRA

Gabonetarako programatuta dauden ekitaldietarako sarrerak abenduaren 11n (goizeko 11etan) ipiniko dira salgai, www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan

MUSIKA

ABENDUAK 11 / 18:30

AKORDEOI KONTZERTUA

J. de Azpiazu musika eskolako akordeoi taldearen emanaldia: Balsa, tangoa, sarandonga eta Rock&Rolla [Santa Anan](#).

ABENDUAK 12 / 17:00 eta 19:00

WILLIS DRUMOND

Willis Drumond taldearen kontzertua. Sarrerak agortuta daude. [Gaztelekuan](#).

ABENDUAK 19 / 12:00

HOTS ABESBATZA

Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen Hots abesbatzaK 'Lux' (argia) kontzertua eskainiko du. [Parrokian](#).

ABENDUAK 27 / 19:00

GANBARA ABESBATZA + ORKESTRA

Ganbara AbesbatzaK eta Aequs Ensemble orkestra sinfonikoak 'Eternal Light' kontzertua eskainiko dute Aitor Biain-Bidartek zuzenduta. [Parrokian](#).

ABENDUAK 28 / 19:00

GOSPEL MUSIKA

Gospel kontzertua. [Santa Anan](#).

ABENDUAK 30 / 18:30



MILA MODU

Oñatiko Mila Modu taldeak 'Absurdoaren paradisu' lan berria aurkeztuko du (6€). [Gaztelekuan](#).

ANTZERKIA

ABENDUAK 20 / 17:00

20.000 LEGUA ITSASPEKO ZABORRETAN

Haurrentzako antzezlan, Txalo antzerki taldearen eskutik (3,5€). [Santa Anan](#).

IKUSKIZUNAK

URTARRILAK 3 / 17:00 eta 18:30

'ERRALDOIEN IKUSKIZUNA'

50. urteurrenaren harira, Oñatz taldeak dantzan jarriko ditu herriko jaietan erabiltzen diren erraldoiak. [Kiroldegian](#).

URTARRILAK 4 / 17:30

'JAN DEZAGUN, ON EGIN!' MUSIKALA

Ganbara Kantu Eskolaren ikuskizun musikatua. (Haurrak 5€ / Helduak 8€). [Santa Anan](#).

URTARRILAK 5 / 19:00

'ERIK ETA WIN'

Buhameak taldearen eskutik, ikuskizuna, kantua, antzerkia, bertsoa eta poesia uztartzen dituen (6€). [Santa Anan](#).

HITZALDI-SOLASALDIAK

ABENDUAK 5 / 16:30

EUSKARA ETA KLASE SOZIALAK

Oñatiko GKS-k antolatuta. Hizlaria: Aitor Bizkarra. [Antixena gaztetxean](#).

ABENDUAK 6 / 12:30

KULTURA ETA ARTEA

Oñatiko GKS-k antolatuta. Mahai-ingurua: Paul Beitia, Maider Arregi, Josu Zubia eta Mattin Korta. [Santa Ana aretoan](#).

ABENDUAK 16 / 18:00

IRANTZU VARELAREN BAKARRIZKETA

'No hay matriarcado, ni en el supermercado'. [Kultur etxeko zinean](#).

BERTSO SAIOAK

ABENDUAK 5 / 19:00

BERTSO SAIOA

aroa Arrizubieta, Garazi Navarro, Aitor Tatiegi eta Urko Aregi (3€). [Gaztetxean](#).

LIBURU AURKEZPENA

ABENDUAK 19 / 12:00

'ALANBRE-HOTSA ETA JAZBANA. OÑATIKO ROCKAREN HISTORIA TXIKIA'

Iñigo Biainek idatzi duen liburuaren aurkezpen ekitaldia. [Kultur etxeko zinean](#).

AZOKAK

ABENDUAK 19 / 9:00-15:00

ELKARTASUN AZOKA

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta. [Foruen plazan](#).

ABENDUAK 20 / 10:00-14:30

ARTISAU AZOKA

Herriko artisauen lanak ikusi eta erosteko aukera. [Foruen plazan](#).

ZINEA EUSKARAZ

ABENDUAK 26-27 ETA URTARRILAK 2-3

HAURRENTZAKO ZINEA

Haurrentzako zine emanaldi bereziak euskaraz. [Kultur etxean](#).

GABONAK

ABENDUAK 14 - 24

GUTUNONTZIA PLAZAN

Olentzero eta Mari Domingiri eskutitzak bidaltzeko gutunontzia [Foruen plazan](#)ARANBURU
ALTZARIAKKale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAKLANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

IPUIN KONTAKETAK

**BIZITZAREN
LABORATEGIAN**

ABENDUAK 17



Ipuinak eta zientzia esperimenduak uztartzen dituen saioa eskainiko du Ana Galarraga zientzia-komunikatzaileak, 6-9 urteko haurrentzat. Bi saio egingo dira, 17:30 eta 18:30etan. Gonbidapenak hilaren 9tik aurrera. [Haur liburutegian.](#)

**OLENTZERO
ETA MARI
DOMINGIREN
ZUHAITZ BEREZIA**

ABENDUAK 22

Ipuin kontaketa antzeztua, 4-5 urteko haurrentzat, Ion Barbarin (aktore eta dantzaria), Izaskun Mujika (aktore eta kontalaria) eta Lur Kortaren (aktore eta kontalaria) eskutik. Bi saio egingo dira, 18:00 eta 18:45etan. Gonbidapenak udal liburutegian, hilaren 9tik aurrera. [Haur liburutegian.](#)



Hileko gomendioa

Nola egiten da film bat? Istorio bati nola ematen zaio forma? Nolako da film baten muntaia? Mark Cousinsek zinemaren historiaren azterketa bikaina egiten du, munduko emakume zuzendari onenetako begiradaren bidez.

ZINEA



Abenduak 3 - 7

ZINE KLUBA:
Adam
NAGUSIAK:
Erlauntza
GAZTETXOAK:
Koko dragoi txikia



Abenduak 10 - 14

ZINE KLUBA:
Tommaso
NAGUSIAK:
Hil kanpaiak
GAZTETXOAK:
El arco mágico



ORDUTEGI BERRIA

Zine-kluba: Osteguna (19:00)
Nagusiak: Ostirala, larunbata eta igandea (19:00). Astelehena (19:00 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (16:30)


Abenduak 17 - 21

ZINE KLUBA:
Para Sama
NAGUSIAK:
Madame Curie
GAZTETXOAK:
Érase una vez



Abenduak 25 - 28

ZINE KLUBA:
Ez da saiortik
NAGUSIAK:
El verano que vivimos
GAZTETXOAK:
Dragoiaren gidaria



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Abenduak 4, 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Abenduak 7, 16, 17, 26 eta 27.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Abenduak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Abenduak 3, 11, 12, 13, 21, 22, 30 eta 31. Urtarrilak 1.



MERKATU TXIKIA

KLASE PARTIKULARRAK Lehen Hezkuntzako eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak (logopeda), partikularrak ematen ditu: 618310126

GARAJEA EROSI Honako kaleetan edo inguruan garajea erosiko nuke: Portu, Lope de Agirre, Bakardadeko Ama, Mendiko Kale eta San Juan kale. Telefonoa: 688 304 704.

ETXEBIZITZA ALOKAGA! Jacan, eski denboraldirako. Herri erdialdean dago. 943781860 / 659291684.

ODOL ATERALDIA

ABENDUAK 4 / 17:00-19:00
Enpresagintza fakultatean



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (4)

ERLATAN

Amaia: Txakurra hartu eta fango gaittuk hire erlaak ikustera?

Jon: Bai, gura badon! *Truskiri* jareiko txanat eta segittuan fango gaittun!

Hala, *Truski*, guazen etxeko erlaak zela dagozen ikustera!

A: Erlategixa non dakok, ba? Urrin?

J: Kaletik bertan, Torrealden; Torretxebarri baserri ondoko mugatxo baten. Badakin nun dan, gutxi gorabehera?

A: Jakingo etxuat, ba! Gu neskatillak giñanian, denpora danian han ibiltten gintzuan jolasian, e!

J: Guazen, ba, orduan! Bi saltuan aillegauko gaittun! Fiu-fiu, *Truski*!

A: Aillegau gaittuk, ikusten xuat erlategixa! Ekarri xuagu erropa egogixa erlaakin ibiltteko?

J: Preguntaittia be! Ekarri ditxonat bixondako buzuak, guantiak, kareta eta ke-pote bana. Honekin guziarekin nehikua izango don, ezton?

A: Bai, horixe! Nik, gaiñetik, kapotetzar bat be ekarri xuat, baezpadabe!

Jon, erropak jantzitta, erlategira hurreratu da eta *Truskiri* atzian geraketako aginketan xao: Egon hadi atzian! Egon hadi hor geldik! Bi miñutu geruago...

J: Jantzi buzua eta hurreratu hadi erlaak ikustera!

A: Bañoiak!

J: Ikusten dittun erlaak? Eta erregiñia? Eztiabauak bete-beteta xagozan!

A: Arraixua! Hau dok hau edertasuna!

J: Gustaitten xan?

A: Izugarri!

J: Ba, orain ezin xonagu beste ezer askorik egin, baiña beste egun baten etorriko gaittun eztixa etaratera.

A: A, bai?

J: Bai, abauok etxera eruaten ditxonagu eztixa etarateko; hori makiñaz egitten xonagu. Ondoren, eztixa potetan sartu eta gordeten don. Eta azkenik, abau batzuren argizarixa aprobetxaitten xonagu kandelak egitteko edo zoruari lustria emuteko. Lan horreik danak egindakuan, abauok erlaairi bueltaitten xostenagu geratu diran ezti-hondarrak miastu degixein

A: Zer ederki!

J: Eginkizun horreik egitten dittugunian, kontuan hartu biharko xonagu zenbat ezti izten dostegun erlaairi, negua pasaitteko bihar-biharrezkua xonai eta!

A: A, eñakixan holako konturik!

J: Bueno, hori dana hurrenguan esplikauko donat hobeto!



HIZTEGIXA ETA ARGIBIDIAK:

Mugatxo: lurraren beste maillatxo bat, gaintxo bat-edo.

Erlategi, erlategixa: *colmenar*.

Erla, erlia: *abeja* (erla asko, erla gutxi, erlaak) eta baita 'colmena' be (erla bat edo erlia, erlaak) (Erla) anbo, (erla) anbu, edo, erláamo, erláamua: *zángano* (erlamando)

Erregiña, erregiñia: *la reina de las abejas*.

Erlauntz, erlauntza: *colmena*. Lehenago, hustutako anporretan egoten ziran.

Erlakume, erlakumia: *enjambre*

Abau, -a: *panal* (abaraska). Eztiabau bat. Eztiabaia, eztiabaekua: *panal con su cera*

Argizari-opilla: metxia dakon argizari-errollua, elizan ebalten dana.



Erlea Euskal Herrian
Erleek Euskal Herrian
izan duten garrantzia
azaltzen duten testua
eta audioa

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Edurra aukeran gutxitxo?

Aurtengo urte zelebre honetan **eguraldixa be desbardiña** ete da? Zemendixa, bataz beste, nahikua epela fan xaku eta siku samarra. Igaz garai honetarako edurra agertu zan, nahiz eta gerora, egunen batzuk kenduta, askotarik ez egin. Jakiña da azken hamarkadetan zenbateraiño **afana** sortu dan **eskiaitteko** hemen eta Oñatititik kanpora. Urbixa eta Duru aldia zuritu orduko, bilddurgarri beteten dira Arantzazu eta enparauetako aparkalekuak. Oraingo egoeria dala-eta, urrin faterik eztaguenez, edur apurren bat egitten badau, seguru **eskiazaille mordua** hurreratuko xakula inguruko mendittara.

Argazki hau atara zanian etzan halako jendetzarik pillaatuko. Oso banakiak eukan edurretarako afiziñua eta aukeria. **Norberak** edo artz lagunuen batek **egindako eskixekin** jarduten euen batzuek. Gizakumiak bakarrik hasi ziran, eta **emakumiak** ekin otsaiñian, **Arantzazuko ostaturen batian aldaketan zittuain arropak**, kaletik frakakin fatia larregiko atrebentzia zalako. Pittinka-pittinka zaletasuna gehittuaz fan zan eta materiala hobetuaz. Malla inguruko maldetan ospatu zan Gipuzkoako txapelketia 1952-1953ko neguan, txantxiuar batzuen parte hartzeiarekin: **Ibarrondo, Leturia, Maiztegitarrak** eta abar. Geruago Tellakas-kuetako tontortxotik Eskistarañako 200 bat metroko arrastrerako kablia jarri zan.

Fotografixiak erakusten doskun plaza edurtuaren irudixa sarrittan ikusi geben gure ume- eta gazte-denboran, baita estalera askoz senduagoaz be. Orduko **trafikua**, gaur egunguaren aldian, **hutsaren hurrengua** izaten zan, eta edurrak gehituago irauten eben lurmenu eta urtu barik. Argazkixa **gerra osteko lehenengo hamarkadetan** atarata egongo da. Hori pentsau eragitten doskue, bestiak beste, kamioiaren itxuriak, adokiñak, akaziak, Banco Vizcaya-ren ofiziniak, barkilleruak edota trafiko-kartelak. Izan be, **Arantzazurako ibilgailluen fan-etorri gehixenak**, behekaldetik nahiz goikaldetik etozenak, derrigorrez eta berandura arte **plazatik pasau bihar izaten euen** haruzkotan eta honuzkotan. Abenidia lehenengo eta bariantia geruago zabaldu ziranian, arindu zan apur bat herri barruko trafikua arazua.

Ba, orain alderdi horretatik hainbesterañoko problemarik egon ez arren, edurrarekin amentzerauta bizi diran oñatiar askok aurten be **negu zurixaren orde z baltz samarra** izango dauela pentsaitten dogu. Urrintxo faterik ez, eta bertan hainbestentzat aukera gutxitxo.

Oharra: orain hurrengo alian Murgialdaiko fotografixan ezkerretik agiri dan lehenengo gizona ezta Migel Guridi, Pedro Guridi baiño. Gure informatzailliak izen zuzena emun oskuen arren, geu despistau giñan azkenengo orduan. Eskerrik asko, barriro be.

Egizu lo ume bat bezala...

Ezin dezakegu bermatu
ume baten modura lo egingo
duzunik, baina **Amuebladora Mondragonesako
atseden sistemekin** asko gerturatzen gara...ZZZZZZ...